

PEDAGOGIA FEMINISTA LEHEN HEZKUNTZAN

Hezkuntza feminista: genero berdintasuna eskolan

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Goikoetxea Albizu, Jaione.

ZUZENDARIA: Fernandez Lasarte, Oihane.

2020-2021

LABURPENA

Gaur egungo hezkuntzak desberdintasunak normalizatzen ditu eta genero berdintasunaren aldeko legeak egon arren, ez da praktikara eramaten. Eskolan eredu sexistak transmititzen dira eta genero-rol eta estereotipoak presente daude oraindik. Horretarako, eskolan sexismoaren moduak nola agertzen diren berriskusten da. Gizarte patriarkal batean bizitzeak epe luzera ikasleengan ondorio negatiboak ekartzen ditu. Lanaren helburuak hauek dira: gaur egun jarraitzen duten generoaren arabera diskriminazio egoerak aztertzea; genero rol eta estereotipoek eragindako ondorio sozialak analizatzea; eta hezkuntzaren bidez bizitzako arlo guztietan genero berdintasuna lortu daitekeela egiaztatzea. Atal praktikoan, Pedagogia Feministaren inguruko unitate didaktiko bat agertzen da 5 dinamika ezberdinekin, ikasleekin aplikatu dena. Parte hartu dutenen artean, 24 ikaslek inkesta bat bete zuten eta maila ezberdinetako 6 irakaslek galdetegi bat. Behin datuak jasota, ondorioztatu da genero berdintasuna lortzeko hezkuntzak lan handia egin behar duela oraindik, gizarte honetan emakumeak eta gizonezkoak ezberdintzen dituen ideologia hauek oso barneratuta ditugulako eta inkontzienteki ikasleei transmititzen dizkiegulako. Lan honen mugarik handiena unitate didaktikoa aurrera eramateko egon den denbora falta izan da eta hobetzeko proposamenari dagokionez, irakasleek Pedagogia Feministaren inguruko formakuntza jasotzearen beharra nabarmentzen da.

HITZ GAKOAK: *Hezkuntza, Feminismoa, Genero rolak, Estereotipoak, Berdintasuna.*

RESUMEN

La educación actual normaliza las desigualdades y aunque haya leyes a favor de la igualdad de género, no se lleva a la práctica. En la escuela se transmiten modelos sexistas, y los roles y estereotipos de género siguen presentes. Para ello, se reincide en cómo aparecen las formas de sexismo en la escuela. Vivir en una sociedad patriarcal trae consecuencias negativas a largo plazo al alumnado. Los objetivos del trabajo son: analizar las situaciones de discriminación de género que siguen en la actualidad; analizar las consecuencias sociales derivadas de los roles y estereotipos de género; y comprobar que, a través de la Educación, se puede alcanzar la igualdad de género en todos los ámbitos de la vida. En el apartado práctico aparece una unidad didáctica en torno a la Pedagogía Feminista con 5 dinámicas diferentes, la cual se ha aplicado con el alumnado. Entre los y las participantes, 24 estudiantes realizaron una encuesta y 6 docentes de diferentes cursos completaron un cuestionario. Una vez recogidos los datos, se ha llegado a la conclusión de que para conseguir la igualdad de género en educación hay que trabajar mucho todavía, porque en esta sociedad tenemos muy interiorizadas las ideologías que diferencian a mujeres y hombres e inconscientemente las transmitimos al alumnado. La mayor limitación de este trabajo ha sido la falta de tiempo para llevar a cabo la unidad didáctica y en cuanto a la propuesta de mejora, se destaca la necesidad de que el profesorado reciba formación en Pedagogía Feminista.

PALABRAS CLAVE: *Educación, Feminismo, Roles de género, Estereotipos, Igualdad.*

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	4
2. JUSTIFIKAZIOA.....	4
3. MARKO TEORIKOA.....	4
3.1 Ikuspegi kontzeptuala.....	5
3.2 Generoa: identitatearen eraikuntza	8
3.3 Eredu sexisten transmisioa eskolan	10
3.4 Emakumearen papera eskolan	17
3.5 Hezkuntza ez feminista baten ondorioak.....	18
4. GRAL-aren HELBURUAK.....	22
5. ATAL PRAKTIKOA.....	22
5.1 Metodologia.....	22
5.2 Proposamen didaktikoa.....	24
6. EMAITZAK.....	25
6.1 Unitate didaktikoko emaitzak.....	25
6.2 Feminismoaren inguruko galdetegia. Erantzunak.....	29
6.2 Irakasleei egindako galdetegia. Erantzunak.....	31
7. ONDORIOAK.....	38
8. MUGAK ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK.....	40
9. ERREFERENTZIAK.....	41
10. ERANSKINAK.....	43
<i>A eranskina: Ikasleen galdetegia.....</i>	<i>43</i>
<i>B eranskina: Irakasleen galdetegia.....</i>	<i>48</i>
<i>D eranskina. Pedagogia Feminista LHn, Unitate Didaktikoa.....</i>	<i>49</i>
I. Eranskina. 1.Dinamika: Formakuntza txikia.....	50

II. Eranskina. 2. Dinamika: Nire mundua eta nahi dudan mundua	50
III. Eranskina. 3. Dinamika: Nire mundua eta nahi dudan mundua + Mila kolore	51
IV. Eranskina. 4. Dinamika: Transexualitateari buruzko hitzaldia	51
V. Eranskina. 5. Dinamika: Feminismoari buruzko ebaluazioa	52
<i>E eranskina. 1 Dinamika: Formakuntza txikia. Erantzunak</i>	62
<i>F eranskina: 2. eta 3. Dinamikak: Nahi dudan mundua+Mila kolore. erantzunak</i>	87
<i>G. eranskina: 4. Dinamika: Transexualitateari buruzko hitzaldia. Erantzunak</i>	97
<i>H Eranskina: 5. Dinamika: Ikasleei ebaluazioa. Erantzunak</i>	107
<i>I Eranskina: Ikasleei egindako galdetegia. Erantzunak</i>	129
<i>J Eranskina: Irakasleen galdetegia. erantzunak</i>	135
<i>K Eranskina. Baimen informatua</i>	153

1. SARRERA

Gaur egun gizartean oso pil-pilean dagoen gai bat feminismoa da; eta honen alde borrokatzen edo kritikatzeko dugu, gehiengoak ezjakintasunean oinarriturik. Historian zehar emakumearen papera behin eta berriz jarri da kolokan rolen inguruan eta gizartean betetzen duen paperari dagokionez. Egia da aldaketa handiak sortu direla mugimendu honi esker: berdintasunaren arloan, eskubideetan edota gizartearen pentsaeran. Bide honetatik jarraitu ahal izateko, oso garrantzitsua da feminismoan oinarrituriko hezkuntza bat eskaintzea.

2. JUSTIFIKAZIOA

Hezkuntzak askotan birplanteatu beharra izan du eskaintzen ari dena eta bere metodologia: nola erakusten duen, nola lan egiten duen eta baloreen eta kulturaren transmisioan beti izan du konnotazio sexista. Seguruenik hezkuntza zentro gehienek uste dute hezkidetzan lan egiten dutela, sexu eta generoen berdintasunean oinarrituz, hezkuntza ez sexista erabiliz eta ez dela neskekiko diskriminaziorik erakusten. Lan honetan erakutsi nahi dut oraindik aipatu ditudan gaiak presente daudela, nahigabe rol sexistak erakusten direla eskolan eta inkontzienteki barneratzen ditugula.

Pedagogia feminista hartzearen erabakia, erabaki pertsonala eta profesionala izan da. Alde batetik, txikitatik jaso dudana hezkuntza eta gizarteak jasotzen duena kolokan jartzen hasi nintzen feminismoaren munduan murgiltzen hasi nintzen heinean. Egoera sexista askoren aurrean aurkitu naiz eta nire buruari galdetzen diot, nola da posible hau XXI. mendean gertatzea? Beste momentu askotan, ez naiz jabetu egoera hauek nire begien aurrean egon direnik eta feminismoaren inguruan irakurtzen ditudan artikulu, berri eta liburuei esker, desikastearen prozesuan murgildu naiz. Irakasle bezala lan egiten dudanean, hezkuntza betaurreko moreak jakintza ematea gustatuko litzaidake, haurrak askatasunez hezi daitezen eta pertsona kritikoak izan daitezen.

Ondorengo orrialdeetan, lanaren helburuak azalduko dira eta ondoren honi egotzen zaion marko teorikoa, non azpiatal ezberdinetan egongo den banatuta. Atal praktikoan, ikerketaren metodoa aurkeztuko da, honekin lotutako proposamen didaktiko bat eta bere emaitzak. Bukatzeko, lanari buruzko hausnarketa kritikoa, aurkitu ditudan mugak eta hobetzeko proposamenak azalduko dira.

3. MARKO TEORIKOA

Gizakia izaki soziala da. Jaiotzen garenean heldugabe egoeran egoten gara eta etengabeko estimulazioa eta informazioa jaso behar izaten dugu gure burua garatzen joateko. Garapen fisiko eta psikologikoa emateko, gure inguruan pertsona helduak behar izaten ditugu eta haiek bizitzan zehar ikasitakoa haurrari transmitituko diote. Hau kontutan hartuta, kultura ere haurrari transmitituko diote.

Vitoria-Gasteizko udalak (2015) azaltzen duen bezala, kultura, bizimodu zehatza eratzen duten eta talde bateko kide berriak bertan sozializatzen diren elementuen (ohiturak, balioak, praktikak, ezaguera, arauak, etab.) multzoak osatzen du. Urteetan zehar, kulturak transmititu dituen baloreak eta arauak aldatzen joan dira, gaur egun ezagutzen ditugunak arte, hezkuntza prozesuei, sozialei eta politikoei esker, besteak beste. Hezkuntzan murgilduz, bertan ematen dira banakako sozializazio prozesuak non beste pertsonekin harremanduz ikasten dituzten hizkuntzak, baloreak edota arauak.

Marañonek (2019a) liburuan esaten duenez, haurrek inguruko informazio guztia jasotzen dute eta neska edo mutila denaren arabera, jasotako informazio hau modu batera edo bestera egokituko dute. Gizarteko estereotipoek emakumeari kalte handiak egiten dizkiote, gure generoaren eraikuntza erabat mugatuta egoten delako. Gizarteak erabakitzen du neskatoa edo mutikoa nolakoa izan behar den eta jaiotzen diren momentutik modu batera edo bestera hezten zaie.

3.1 IKUSPEGI KONTZEPTUALA

Gai hau hobeto ulertzeko eta sakontzeko, beharrezkoa da kontzeptu batzuk argi izatea, izan ere, nire GRAL-a aurrera doan heinean, patriarkatua, sexismoa, ahalduntzea, sexua eta generoa edota berdintasuna eta generoaren arteko ezberdintasunak bezalako terminoak azalduko dira.

Coppolechiaren (2019) artikuluan azaltzen den bezala, **patriarkatua** gizonezkoen nagusitasun sexista emakumezkoen gainetik instituzionalizatzen duen sistema politikoa da eta horrela, oinarri biologiko baten gainean gauzatzen den menderatze mekanismo gisa funtzionatzen duen egitura da. Ideologia hau, alde batetik, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun biologikoak berezkozat eta naturalizat hartuta eraikitzen da. Eta bestetik, desberdintasun horiek mantentzen eta zorrozten ditu errealtatearen eta pentsamenduaren egitura dikotomikoa postulatuaz

Varelak (2013a) *Feminismo para principiantes* liburuan azaltzen duen bezala, XIX. mendetik aurrera, patriarkatuaren inguruan teoria ezberdinak sortzen hasten ziren eta gizartean hegemonia maskulinoa egoteak usurpazioa esan nahi zuen. Hortik aurrera, patriarkatua alderdi kritikotik ikusi izan da. Hitz hau, XX. mendeko 60. hamarkadatik aurrera erabiltzen hasi ziren garai hartako feministak eta horrela definitzen dute: gizonezkoek emakumezkoaren gainean egiten duten politika sexuala da. Reguantek (2014) dioenez, gizonen autoritate eta lidergoaren ideia antolaketa politiko, ekonomiko, erlijioso eta soziala da, eta gizonen nagusitasuna emakumezkoen gainetik jartzen dute; senarrarena emaztearen gainetik; aitarena ama, semea eta alabaren gainetik; zaharrek gazteen gainetik izaten duten boterea eta aitaren ondorengo ildoak amaren gainetik. Patriarkatua gizonek hartutako botere historiko batetik

sortutakoa da, non emakumeen sexualitatea eta ugalketa eta hauen produktua, seme-alabak, bereganatu dituzten, aldi berean, mitoen eta erlijioaren bidez orden sinbolikoa sortu zuten, egitura posible bakar gisa iraunaraziz.

Hau da, patriarkatua gizonek menderatzen duten kultura da. Horregatik, hemendik transmititzen diren balore eta ideiek, normalizat hartzen dute botere maskulinoa femeninoaren gainetik egotea. Gainera, ez da bakarrik botere sexuala, baizik eta kultura ezberdinen, klaseen eta arrazaren gainean zapalkuntzak sortzen ditu. Patriarkatua sistema politiko bezala ikusteak, emakume ezberdinei aukera eman zien ikusteko zer nolako kontrola zuten gizonezkoek emakumearen gainean.

Varelak (2019d) **androzentrismoa**, mundua maskulinoztat hartzen du eta gizakiaren irudikapena gizonezkoa da. Hau da, gizonezkoa gauza guztien neurritzat hartzea. Androzentrismoak errealitatea desitxuratzen du eta ondorio latzak ekartzen ditu. Ikerketa edo analisi bat, bakarrik ikuspuntu maskulinoetik egiten bada eta ateratako erantzunak mundu guztiarentzako baliogarriak direlakoan erabiliz gero, zientzia kolokan jartzen da eta nahasmena sortzen du. Ondorioz, emakumea ikusezin bihurtzen du bizitzako arlo guztietatik.

Azaldu beharreko beste kontzeptu bat, **sexismoa** da. Varelak (2013a) esaten duenez, sexismoa patriarkatuaren baitan nagusi den sexuaren gutxiagotasuna, menpekotasuna eta esplotazioa mantentzeko erabiltzen diren metodo guztien multzoa da: emakumezkoen zapalketa. Sexismoak bizitzako arlo guztiak eta giza harremanak biltzen ditu. Beste modu batera esanda, emakumeen menpekotasuna eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun hori betikotzeko erabiltzen dituen metodo guztiak defendatzen dituen ideologia da. Sexismoa instituzionalizatuta dago, beraz, desberdintasunek eragiten dituzten hizkuntza edo legeak, sexismoaren plazaraketa da.

Beraz, sexismoa modu askotara manifestatu daiteke: etxeko edota zainketa lanak emakumeari bakarrik helaraziz, umiliatuz, gauza bihurtuz, ikusezin bihurtuz, emakumearekiko kontrola eta biolentzia eginez... baina batzuetan ez da hain muturrekoa izaten sexismoa eta garraio publikoetan gizonezkoak ikusten ditugu hankak zabaldua, umorea erabiltzen dute emakumea gutxiesteko, emakumezkoen konbertsazioetan sartzen dira beraien espazioa edo hitz egiteko aukera inbadituz eta gizonezkoek emakumeak kalean molestatzen dituzte txistu eginez pentsatzen dutelako *emagaldua* edo *lotsagabeak* direla, emakumezkoek beraien sexualitatea askatasunez bizi dutelako. Baita, pentsatzea emakumezkoek ez dutela gizonek bezainbesteko gaitasuna kirola egiteko. Hau dena, haur batek txiki-txikitatik ikas dezake.

Sexua eta generoa terminoak, teorikoki azaldu daitezke baina praktikan ia ezinezkoa da ezberdintzea. Subiratsek eta Tomék (2010) esaten dutenez, generoa

sexuaren ezaugarri soziala da. Sexua, izaki batek dituen ezaugarri fisiko eta sexualak dira, eta haien arabera zehazten dira dotazio genetikoak. Elementu hauek, neurri batean, aldakorak dira, izan ere, pertsona transexualen existentziak erakusten digu, arlo honetan gauzak dirudite baina konplexuagoak direla eta aldaketa garrantzitsuak egoten direla. Generoaz hitz egiterakoan, gizarteak egotzitako portaera ereduak dira, segun eta gizonezkoa edo emakumezkoa zaren. Ondorioz, portaera mota jakin bat izango dute segun eta bere generoa zein den. Gure bizitza pertsonalean ezaugarri generiko batzuk aldatu ditzakegu, adibidez, generoa eta harreman sexualetan; homosexuala izatea. Baita, sexu biologiko eta sexu psikikoan, pertsona transexualak. Ondorioz, beraien identitatearen deseraikitze prozesu bat jasaten dute eta askotan oso gogorra izaten da.

Beraz, historikoki genero maskulinoa femeninoaren gainetik egon da eta honek, sexuen arteko hierarkia sortu du. Hierarkia honek, aukera eta eskubide berdintasunak suntsitzen ditu.

Sexismoak eta patriarkatuak sortzen duten arazo nagusia zera da, ez dagoela genero berdintasunik, gizon eta emakumeen arteko benetako berdintasun eza. UNESCOk (d.g.) azaltzen duenez, emakumeen eta gizonen, eta nesken eta mutilen eskubide, erantzukizun eta aukera berdintasuna da, **genero berdintasuna**. Genero berdintasunak emakumezkoen eta gizonezkoen interesak, beharrak eta lehentasunak kontuan hartzea dakar, emakumeen eta gizonen talde desberdinen aniztasuna aitortuz.

Hau da, pertsona ororen eskubide eta aukera berdintasuna izatea, jaiotzetik ezarrita dauden ezaugarriak kontuan hartu gabe. Bestetik, **genero ekitatea** dugu, non EMAKUNDEk (2006) horrela definitzen duen: Ekitatea generoari doitzeko prozesuen multzoa da. Emakumeekiko desberdintasunen kalteak konpontzeko ekimenek osatzen dute. Emakumearen **ahalduntzeari** dagokionez, EMAKUNDEk (2006) hau esaten du:

Eraldatze prozesua, non emakume bakoitzaren historiaren, politikaren eta kulturaren objektu izatetik bere bizitza propioaren subjektu izatera pasatzen den, historiaren, politikaren, kulturaren eta bizitza sozialaren protagonista. Prozesu horretan, emakumea “bizi-ahalmen” multzo batez jabetzen da, independentzia eta autonomia materiala, soziala eta etikoa ematen diotenak (36. or.).

Feminismoa zerbait desegokia izango balitz bezala tratatzen da. Baina zergatik? Feminismoak ezarritako guztia kolokan jartzen duelako. Feminismoa diskurtso politikoa da non oinarri bezala justizia duen. Feminismoa emakumezkoek egiten duten teoria eta praktika politikoa da, izan ere, gure errealitatea analizatzen dugunean konturatzen gara diskriminazioa jasaten dugula eta emakumeok batzen gara gizartea aldatzeko. Diskurtso, hausnarketa eta praktika feministak, etika eta munduan bizitzeko moduarekin

daude lotuta. Feminismoarekin topo egiten dugunean, emakumeon bizitza aldatzen da goitik beheraino. Feminismoaren oinarria, emakumeak beraien bizitzaren jabe izatea da eta gizonezkoarekin ez konparatzea edota ez hartzea eredu bezala, pertsona bati buruz hitz egiten ari garenean. Feminismoak gizon eta emakumeen arteko harremanak aldatzen ditu eta ezagutza arlo guztietan talka egiten du. Feminismoaren espirituak pixkanaka mundua aldatzen du eta egunerokotasunean lan egiten du gizaki bakoitzak nahi duena izateko eta nahi duten bezala bizitzeko, beraien sexuaren arabera ezarrita dauden mugak gaindituz. Gure gizartearen helburua, pertsona ausartak, askeak eta beraien bizitzaren jabe direnak heztea izan beharko litzateke, baina hau ez da beti betetzen.

3.2 GENEROA: IDENTITATEAREN ERAIKUNTZA

Sexua eta genero kontzeptuek askotan dudak sortzen dituzte eta hauek nahasten ditugu. Sexuari dagokionez, bere definizioan bi aldagai ezberdinu behar dira: biologia eta genetika, non gizakiak bi ataletan banatzen dituen: emakumezkoa eta gizonezkoa. Bietan aurkitzen ditugun ezberdintasun nagusienak biologikoak (genitalak eta hormonak) eta genetikoak (kromosomak) dira.

Ezberdintasun biologikoak bi ezaugarri nagusi ditu eta gure organo sexualetan ikus dezakegu, zakila eta alua. Norbait hauetako batekin jaiotzen denean genero bat edo beste ezartzen zaio: femeninoa edo maskulinoa. Ondorioz, bizitza guztirako baldintzatuko da eta garatzen doazen heinean, genero rol bat edo beste ezarriko zaie non modu batera edo bestera heziko zaien edo tratatuko zaien.

Euskadin, lege ezberdinak ari dira ateratzen bakoitzaren genero identitatea errespetatzeko eta berdintasunean bizitzeko. Hala nola, Ekainaren 28ko 14/2012 lege organikoa, transexualak genero-identitateagatik eta haien eskubideak aitortzeagatik ez diskriminatzea dioenez, beharrezkoa da aipatzea, gizaki bakoitzak bere pertsonalitatea modu aske batean garatzeko eskubidea duela, inongo diskriminaziorik jasan gabe. Zehazki, bere genero identitatean oinarritzea da, legalki Euskal Autonomia Erkidegoan inork ezin duelako honi buruzko diskriminaziorik egin. Espainia mailan ere, genero berdintasuna bermatzeko legeak daude, adibidez Abenduaren 28ko 1/2004 lege organikoa, genero indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriak dioenez, biolentziaren aurkako legea da, diskriminazioaren, ezberdintasunen eta emakumeen gainean gizonen harreman botereen kontra joaten dena. Lege hau, emakume biktimaren familiarrei edota inguruko pertsonari ezartzen zaie, nahiz eta batera ez bizi. Ondorioz, lege honek egoera hauek ekiditea, salatzea, zigortzea eta eliminatzea du oinarri eta emakumeei, beraien adingabeko seme-alabei, tutelatua daudenei edota kustodia dutenei babestea. Genero indarkeria lege honen arabera, indarkeria fisikoa eta

psikologikoa barnebiltzen ditu, askatasun sexuala, mehatxuei edota askatasunari orokorrean indarkeria hau erabiltzen bada.

Feminismoaren bigarren olatuan, Simone de Beauvoir idazlea, irakaslea eta filosofo frantsesa kokatzen dugu. Honek, giza eskubideen eta feminismoaren alde borrokatu zuen. Bere lanik garrantzitsuenak *Bigarren sexua* liburua izan zen, 1949an eta honekin, bera ere feminista bihurtu zen. Bere aitak esaten zuen, “gizonezko baten adimena zuela” eta bere obra, feminismoaren gaiko klasiko bat bihurtu zen. XX. mendetik aurrera, feminismoaren historiako obrarik garrantzitsuenak bihurtu zen eta historia, politika, pedagogia, filosofian edota psikologian genero ikuspegiak txertatu zituen (Varela, 2019b).

Beauvoir-ek ondorio batzuk atera zituen. Ez dago ezer biologikorik edo naturalik, emakumeari egiten zaion zapalkuntza justifikatzen duenik. “*No se nace mujer, se llega a serlo*” idatzi zuen, izan ere, filosofiaren arlotik begiratuta, gizakiak emakumearekin egin duena aztertu zuen eta urte batzuk geroago, oinarri hau hartuta, generoaren teoria azaldu zen. Gauza bat sexua da, hau da, ezberdintasun biologikoak eta beste gauza bat, kulturak emakumeei esaten diena: nolakoak izan behar diren eta gizonezkoekin nolako jarrera izan behar duten. Bere filosofiak, natura eta kultura banandu nahi zituen eta generoa eraikuntza sozial bat denaren ideia zabaldu zuen. 50. hamarkadan, belaunaldi berriko feministen artean, liburu hau oso zabaldua izan zen, emakume hauek iada unibertsitatean joaten ziren, feminismoaren hirugarren olatuaren sortzaileak izango zirenak (Varela, 2019d).

Hau da, sexua biologikoki mugatuta dago eta gizon eta emakumeak, fisikoki ezberdintasunak ditugu. Generoa aldiz, eraikuntza sozial bat da eta bakoitza bere modura identifikatzen da baina kulturak eta baloreek mugatzen dute hau, eta urteen poderioz, honek esaten du gizona edo emakumea nolakoa izan behar den.

Martinez-Martinek (2017) bere artikuluan adierazten duenez, txikitatik genero roletan hezten gara eta sozializazio horren arabera gure identitatea eraikitzen dugu: emozioak, pertzepzioak, harreman inter eta intra pertsonalak, desioak etab. Behin sozializazio elementu hauek barneratzen ditugunean, ontzat ematen ditugu eta gure ondorengoei erakusten dizkiegu rol horiek, nahiz eta rol maskulino edo femeninoak izan. Beraz, ezinbestekoa da gai honi buruz hausnartzea eta kritikatzeko, gure errealitatea zein den jakiteko eta horretarako, eskola dugu. Eskola espazio seguru eta eraldatzailea izan behar da eta horretarako, irakasle kritikoak behar dira bestela mekanismo hetero-patriarkatuak zabaltzen egongo gara behin eta berriz.

Neska eta mutilak berdintasunean hezteko, sistema ez patriarkatua izan behar dugu bestela ez dugu inoiz jakingo zenbaterainokoak diren sortutako ezberdintasunak.

Genero estereotipoak sozialki sortutako jarrera modeloak dira, genero maskulino eta femeninoa, hain zuzen ere. Genero rolek esaten dute nola sentitu behar garen, zein jarrera izan behar dugun, nola jantzi behar garen, nola pentsatu behar dugun eta nola harremandu behar garen emakumezkoak eta gizonezkoak. Beraz, emakumezkoa sentsiblea, emozionala, gizonei gustua ematen diena, etxeko lanak egin behar dituen, pertsonak zaintzen dituen eta heziketa munduan ibili behar dela esaten digu. Gizonezkoaren rola aldiz, indartsua izatea da, bere emozioak ez ditu azalerauko, agresiboa, zapaltzailea, etxera dirua eramaten duena eta autoestimua altua duena izan behar da. Rol hauek guztiek bi sexuei eragiten diete baina emakumeei ezartzen zaizkien estereotipoek ezberdintasun sozial handiak sortzen dituzte. Haur bat jaiotzen den momentutik, familiak, eskolak eta gizarteak emakumea eta gizona izateko hezten dute (Marañón, 2019b).

3.3 EREDU SEXISTEN TRANSMISIOA ESKOLAN

Pertsona baten hezkuntzako lehen etapetan hau da, Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan, sozializazio prozesua ematen da eta banako bakoitzaren identitatea eraikitzen da, bakoitzak bere genero rola barneratuz. Eskolan, gizon eta emakumeak ikasten dute bakoitzari dagokion genero rol maskulino eta femeninoa esleituz.

Eskolan, gizartean gertatzen denaren erreprodukzio txiki bat ikusten da eta kontuan hartu behar da, eskolan baloreak eta kultura presente ditugun ideiak transmititzen direla, genero rola barne. Eskolan etengabe, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzen saiatzen dira eta sexuaren araberako ezberdintasunak ez egiten saiatzen dira ondorioz, berdintasun formala lortuko da baina hau ez da guztiz erreal. Izan ere, harreman sozialetan diskriminazioak daude oraindik eta askotan normalizat hartzen ditugu, gure kulturak eta gizarte ideologiak hala ikusten duelako (Subirats, 1994).

Generoan oinarritzen den pedagogia batez hitz egiten dugunean, dimentsio aniztun, ezberdinen aniztasunari eta kritika sozialari buruz hitz egiten dugu; hauek dira beste pedagogia tradizionalei erantzen zaizkien ezaugarriak. Pedagogia eta hezkuntza feministak, orain arte hezkuntzan desberdintasunen transmisioa eta honen erreprodukzioa gaintzea du helburu. Pedagogia feministak, haur autonomoak eta ahalduak hezi nahi ditu horretarako, pedagogia kritika sozialarekin, aniztasunarekin, errespetu kulturalarekin eta burujabetzarekin lotu behar da. Pedagogia feminista eskolan txertatu behar dugunean, muga eta hizkuntza androzentrista eta kolonialarekin apurtu behar da, bakoitzaren eta besteen autoritatea landuz, ondokoa aitortuz eta errespetatuz. Ezagutzetan oinarritzeaz gain, pedagogia feministak gizon eta emakumeen "iraultza"

egitea beharrezkoa ikusten du, maskulinitate berriak eraikitzeko. Gizonei emakumeei buruzko ezagutzak transmititzea ezinbestekoa da, gizonek ikuspuntu egokia eta errealista izateko eta beraiekin harremanetan ikasteko (Martinez-Martin, 2016).

Hau da, ezinbestekoa da botere harremanetan aldaketak ematea, gizon eta emakumeen rola berriro definituz eta gizon txuri heterosexuala eredu izateari utziz. Portaera hegemonikoekin amaitu behar da, aniztasuna ezagutu, errespetuan oinarritutako harremanak sustatu; sexualitatea erakutsi estereotipoetan erori gabe; errealtate guztia ondo erakutsi eta haurren interesetatik abiatu.

Castillok eta Gamboak (2013a) aldizkarian esaten dutenez, eskolak herritarrak hezten ditu eta bertara joatea derrigorrezkoa da. Eskaintzen den hezkuntza sistemak sexu ezberdintasunak egiten ditu eta harreman patriarkatuetan oinarritzen dira. Genero azterketek esaten dutenez, eskolan sozializazio sexistak ematen dira eta honen ondorioz, sexuaren arabera hezkuntza eskaintzen zaie. Sexismoak ondorio latzak ekartzen ditu banakoetan, izan ere, beraien gaitasunetan mugak jartzen dituzte eta emakumeak gizonekin konparatuz, maila baxuago batean kokatzen ditu, hauei dependentzia bat sortuz. Baita, genero arauak direla eta, beraien pertsonalitatearen hezkuntza garapenean mugak jartzen ditu eta sexu bakoitzeko itzaropen eta aukera ezberdinak aurreikusten ditugu. Eskolako curriculum ezkutuan sexismoa agerian gertatzen da; orokorrean hezkuntza sexista erabiltzen da, genero maskulinoa gainjarriz; eskolako testuetan, gizon eta emakumeekiko eredu tradizionalak azaltzen dira... Azken finean, emakumeok zailtasunak izan ditugu goi mailara heltzeko, etxean, eskolan eta gizartean eskaini diguten hezkuntza dela eta non gizonek agintzen duten eredu tradizionaletan oinarritzen den. Beraz, hezkuntzak, sozialki sortutako sexu eta generoen arteko ezberdintasunak transmititzen ditu eta sozialki zehaztuta dauden genero identitateak erakusten ditu.

Neska eta mutilak berdintasunean hezi behar dira baina honek ez du esan nahi berdina izan behar direnik. Ikusi da nola historian, zientzian, literaturan eta beste irakasgai akademiko eta kulturaletan, ikuspuntu androzentriko batetik azaltzen diren, emakumea ikusezin bihurtuz eta bere lanak eta pentsamenduak zapalduz. Aurretik esan bezala, hezkuntzan estereotipo sexistak, hezkuntza ez inklusiboa... erabiltzen dira.

Berdintasunean oinarritutako hezkuntzaz hitz egiten dugunean, ikaskuntza aukera eta erreferente berdina izatea esan nahi du. Txikitatik erakutsi behar zaie genero estereotipoak daudela eta hauek deseraiki behar direla. Berdintasunean oinarritutako hezkuntza eskaintzea ez da erraza, gizarteak eta etorkizunak presioa egiten duelako eta gaur egun, hezkuntza mota hau ia utopikoa da; etengabeko kontrakorrontean joan behar gara, haurrek erreferente androzentristak dituztelako.

Haurrak jaiotzen diren momentutik, familiek erabakitzen dute berdintasunean hezi edo ez. Haur bat jaio aurretik, neska edo mutila den bakarrik dakigu eta horren arabera, gela urdinez edo arrosez margotzen dute, arropa ezberdinak edota neska baldin bada belarritakoentzako zuloak egingo dizkiogu. Beraz, haurra jaiotzen den momentutik genero rolak esleitzen dizkiogu eta ez diogu uzten bere pertsona askea izaten eta bere generoa azaleratzen (Varela, 2019d).

Etxean eta eskolan dauden jostailu eta jolas motekin ere kontuz ibili behar da. Jolas gehienak estereotipatuak dira eta generoaren arabera oso ondo markatuta daude. Haurrek ikasteko eta sozializatzeko erabiltzen dituzten erramintak dira eta honekin jolas sinbolikoan ibiltzen dira eta harreman mota ezberdinak izaten ikasten dute. Beraz, horrelako jostailuekin haur bakoitzaren jarreran, emozioetan, sentimenduetan, nahietan eta roletan ezberdintasunak sortzen ditu, harreman estereotipatuak sortuz. Jolas ludikoekin, haurrek soziokulturalki sexu bakoitzarekin harremanduta dauden jarrera eta balore sexistak ikasten dituzte. Baita, arazoak konpontzeko garaian; hitz eginez edo biolentzia erabiliz (Varela, 2019d).

Haur eta gazte literaturan, gauza berdina gertatzen da. Ia istorio eta liburu guztietan emakumearen bizitza gogorra eta honen zapalkuntza erakusten dute baina betaurreko moreak erabili gabe. Garrantzitsua da eskolako materiala era egokian eta kritikotasunez erabiltzea, genero estereotipoetan eta rol sexistetan erori gabe. Beharrezkoa da haurrek erreferente femeninoak izatea. Mutilek ikusi behar dute neskek gai direla beraien gauza berdinak egiteko eta neskek, horrelako erreferenteak behar dituzte inspiratzeko. Eskolako material hauek, haurren pentsamendu kritikoa garatu behar dute, beraien kabuz pentsatzeko eta iritziak emateko. Beraiek inguratzen duen errealitate patriarkatua zein den ezagutzeko. Kontuan hartu behar da, eskolan erabiltzen diren liburu edota ikus-entzunezko materialak (Varela, 2019d).

Eskolako kirolean, orokorrean mutilei futbola gustatzen zaie eta neskei ez. Baina zer gertatzen da mutil batek ballet-a egin nahi badu edota neska batek futbolean jolastu nahi badu? Beste ikaskideen partetik zapalkuntza jasoko dute, kirolen munduan generoak oso markatuta daudelako. Beraz, neskei estereotipo maskulinoan oinarritutako kirola probatzera animatu behar zaie eta mutilei, estereotipo femeninoan oinarritutako kirolak. Ikusi eta ikasi behar dute kirolak ez duela generorik. Baita, erreferente maskulino eta femeninoak erakutsi behar zaizkie, haurrek barneratuta dituzten rol tradizional horiekin amaitzeko. Garrantzitsua da txikitan gustatzen zitzaizkien kirolak berriro berreskuratzea eta honen garrantzia azpimarratzea (Varela, 2019d).

Beraz, haurrek txikitatik familiarekin izaten duten sozializazioan, orokorrean gizonezkoek izaten dute rol garrantzitsuena edo indartsuena: gizonezkoek eramaten

dute dirua etxera eta emakumezkoen ekarpenei ez zaie garrantzi handirik ematen. Pixkanaka eredu hau aldatzen doa eta genero rolen banaketa txikitatik barneratzen dute, adibidez sozializazioko lehenengo etapetan erabiltzen dituzten jostailuetan. Ondorioz, esan daiteke haurrek eskolara hau barneratuta eramaten dutela eta eskolan erreproduzitzen dutela. Baina, hezkuntza sistemak erronka handi batekin topo egiten du: gizon eta emakumeen arteko ezberdintasuna bultatzen duten genero rol hauekin amaitzea. Beraz, esan daiteke, hezkuntza sistemak genero rol hauek “mantendu, erreproduzitu eta indartzen” dituela. Egoera hau ageriko eta ezkutuko curriculumean ikus daiteke. Ikasgelan ematen diren gaiak eta liburuak analizatzen baditugu, genero estereotipoen ezabaketa ez dela eskolako helburuetako bat. Gizakiaren garapena ematen denean, gizonzkoen presentzia nabaria da, emakumezkoena ikusezin bihurtuz. Emakume eredu gutxi ematen dira eskolan.

Genero berdintasunaren integrazio transbertsala eskolako programetan beharrezkoa da eta curriculumean modu espezifikoa agertu behar da. Ondorioz, komunitate osoari eragiten dio eta pertsonen artean desberdintasunak sortzen ditu. Eskoletan estereotipoak pil-pilean egoten dira eta ikasle eta irakasle artean ondo nabarmentzen da. Beraz, beharrezkoa da irakasleek gai honi buruzko formakuntzak jasotzea.

EMAKUME IKUSEZINAK

Emakumeen diskriminazioa modu askotara eman da: Subiratsek (1994) esaten duenez, historikoki zientzia gizonzkoek azaldu dute eta tradizionalki, emakumeak baztertuta egon dira kulturari eta zientziari egin dizkieten ekarpenetan.

Pasa ditudan eskola guztietan, historia, literatura, zinea, artea edota musikan autore maskulinoak eman ditut. Emakume askok ekarpenak egin zituzten aurretik aipatutako arlo horietan guztietan, eta ezinbestekoak eta baliotsuak izan ziren gizakiaren garapenerako baina ia inor ez da agertzen testu liburuetan eta beraien lanak gizonen argitaratzen zituzten. Zientzia munduan eredu bezala Marie Curie ezagutzen dugu, Nobel sariak irabazi zituen baina beti bere gizonaren presentzia azpimarratzen da. Eta horrela, beste milaka emakumeen egoera azpimarratu behar da.

Hizkuntza eta Literaturaren arloan, eskolako testu liburu bat irekitzen dugunean, gaur egun emakumeak oraindik ikusezinak direla konturatzen gara. Argi dago autore guztien lanak ikusarazi behar direla baina gizon eta emakumeen artean ezberdintasun handia nabaritzen da. Ikasleek ikusten dute, nahiz eta inkontzienteki barneratu, gizon eta emakumeen arteko desberdintasuna eta honekin, erakusten diegu emakumeak ez direla gai sortzaileak izateko edota goi karguetara heltzeko.

CURRICULUMA ETA MATERIAL DIDAKTIKOAK

Aurretik aipatu dudan bezala, nahiz eta berdintasuna bermatzen duten legeak atera eta hezkuntza sistemako programek eta planifikazioek hau nahi duten sustatu, hau aurrera eramateko zailtasunak sortzen dituzten egoerak egoten dira. Beraz, ez dugu ahaztu behar irakasleen papera eskolan, izan ere, hauek teoria praktikan jartzen dute, gaiak aukeratzen dituzte eta curriculum ezkutua transmititzen dute, sozializazio modelo eta harremanak sortuz (Moreno, 2000).

Hezkuntzaren helburu nagusienetarikoa bat, banako bakoitzak elkar errespetatzea eta diskriminazio fisikorik, psikikorik eta sozialik ez egitea izan beharko litzateke. Aitzitik, curriculum ezkutuan hezkidetzan oinarritzen ez den hezkuntza transmititzen da. Ondorioz, hau barneratzen dugu eta gaitasun edo ezaugarri batzuk sozialki baliokotzat jotzen ditugu (Moreno, 2000).

Normalean, oharkabean igarotzen diren eta ezkutuko curriculumaren zati diren estereotipoak eta genero rola modu guztiz inkontzientean transmititzen dituzten material didaktikoen presentzia dago. Villuendas eta Gordoren arabera (2003), testuliburuak, ikasleei kultura ezberdinak transmititu behar dizkie. Hona hemen Gargallo eta Perezek (d.g.) "Sexismoa eta genero estereotipoak eskolako testuliburuetan" artikuluan agertzen diren zenbait ondorio:

- Etxeko esparrua femeninoarekin identifikatzeko inklinazioa. Gizonen parte hartzea urria eta anekdotikoa da.
- Desoreka nabarmena emakumezkoen pertsonaiak gizonezkoen alde agertzearen artean.
- Emakumeek gizonezkoekiko menpekotasuna agertzea, batez ere laneko egoeretan.
- Gizonak espazio publikoaren eta lan espazioaren protagonista gisa agertzen dira, ia lanbide guztiekin identifikatzeko gai baitira, emakumeek ez duten hain esparru zabala eta tradizionalki feminizatutako sektoreekin ere lotzen dira, hala nola hezkuntza edo osasuna.
- Gizonezkoen irudia adimena, lehiakortasuna, ekimena, ausardia edo asmakuntza bezalako ezaugarriekin erakusten da; emakumeak, berriz, edertasunarekin, ohitura onekin eta maitasunarekin lotzen dira, eta beraien edertasuna erabiltzen dutela egoera sozialen bat konpontzeko. Adibidez, arazoren bat konpontzeko edo zerbait lortzeko.

Eskolako testuliburu eta material didaktikoen, gizarte ereduak transmititzen dituzte eta funtzio ideologiko nabarmena izaten dute. Munduari, gizarteari eta hau osatzen duten talde sozialei buruzko ikuspegiak dituzte. Garrantzitsua da, bai neskei eta bai mutili, beraien identifikazio-eredu horiek ez izatea sexistak eta mugatzaileak. Argitaletxeak legearen eskakizunetara egokitu dira eta, sexuagatiko bereizketa oso

gaitzesten dute. Baina, testuliburuak sakon aztertzen hasten bagara, diskriminazio hori oraindik existitzen dela egiazta daiteke, nahiz eta modu sotilagoan gertatzen den. Hauetan, sexismoa modu esplizituan edo ezkutuan agertu daiteke. Sexismoa esplizitua denean, sexuak bestea ikusezin bihurtu edo ezkututzen du adibidez, sexu bateko edo besteko presentzian desokea dagoenean. Aitzitik, sexismo inplizituetan, identifikazio pertsonal edo sozialeko eredu mugatuak eskaintzen dira. Oinarrizko arazoa zera da, kulturak eredu maskulinoa izaten duela ardatz gisa eta mutilei eredu gehiago eta hobek eskaintzen zaizkiela neskekin konparatuz gero (Gargallo eta Perez, d.g.).

Testuliburuetatuz gain, genero rol eta estereotipoak transmititzen dira literatura eta ipuinen bidez, Arestian adierazi bezala, testuek estereotipo maskulinoak eta femeninoak transmititzen dituzte. Irudiek eta hitzek haxe definitzen dute: mutilak indartsuak, independenteak edota buruargiak direla eta neskek aldiz, mendekotasun afektiboa izaten dute, besteak beste. Baita, egiten dituzten jarduerak, esleitzen zaizkien jolasak, harremanak, janzteko erak... desberdinak dira sexuaren arabera. Normalean, ipuinen amaierak ezkontza batekin edo printzearen agerpenarekin bukatzen dira, neskei errealizaio pertsonal estereotipatua eskainiz. Txiki txikitatik ipuinen bidez, bertako kultura eta gizarteko estereotipoak barnerraten dituzte. Honekin esan dezakegu, ipuin tradizionaletan eredu estereotipatu argia egoten dela eta modelo sozial androzentrikoak gizartean bete behar dituzten paper sexistak transmititzen dizkietela (Gargallo eta Perez, d.g.).

Zorionez, ipuin tradizionalen alternatibak sortzen ari dira: ipuin tradizionalen pertsonaia berdinekin baina beste istorio batzuekin nahastuz. Edota, pertsonaiek jokatzen duten papera aldatzen da, ipuin tradizionalak transmititzen dituzten genero estereotipoak murriztuz edo akabatuz. Adibidez, Txanogorritxu ipuinean, Txanogorritxu neskato ausarta bihurtu da eta otsoa koldarra.

IRAKASLEA

Irakasleak eskolan sartzen diren momentutik, irakasleak ikasleen eredu izaten dira. Irakasleen prestakuntza oinarrizko zutabea da, irakasleak ikasleen ikaskuntza prozesuetan eragiten duen bitartekari garrantzitsuenetakoa delako (Moreno, 2000). Beste modu batera esanda, irakasleek ezagutzak transmititzen dituzte eta hauek transmititzeko moduak ondorioak izaten ditu ikasleen hezkuntzan. Ingurunean jarrera edo portaera matxistak baldin badaude eta are gehiago, eskolan ere bai, irakasleek jokabide hauek normalizatuko dituzte eta aurrerago zailagoa izango da hau eraldatzea.

Hezkidetzak, hezkuntzan sexismoa deuseztatzea helburu duen eskola eredu aurkezten du. Baina ez bakarrik arlo formalean, baizik eta ikasleen hezkuntza garapen osoan ere. Izan ere, neskak eta mutilak ikasgela berdinean bizi dira eta eskolak

berdintasun formaletik haratago joan behar dira. Sexismoa hezkuntzatik ezabatzeak, balioen ideologia berri bat ezartzea eskatzen du.

Une honetan, garrantzitsua da irakasleak hezkidetzaren alde gehiago egotea eta genero eta berdintasun gaietan zentratzea. Hezkidetzarekin konprometitu sentitzen ez diren irakasleek ez dute beren irakaskuntza osoa emango (Moreno, 2000). Botere posizioek benetan interesa izango balute eta arazoaren mekanikaz eta larritasunaz jabetuko balira, ziur aski erreforma berriak egingo zituzten.

HIZKUNTZA

Hizkuntza beti izan da diskriminatzeko beste modu bat. Hizkuntza da informazioa transmititzeko tresna nagusia eta bizi garen munduko errealitateak eraikitzen ditu, jendea elkarren artean komunikatzeko, ahoz zein ez ahozko komunikazioa erabiliz. Hizkuntza eta kultura lotuta daude, beraz, hitzak erabili gabe ezinezkoa da pentsamendu arrazionala izatea. Sozializatorako funtsezko faktorea ere bada, sentitzen duguna, pentsatzen duguna, zer garen... gure jarrerak, gure sentimenduak, gure sinesmenak etab. transmititzen dituelako (Velasco, 2017).

Baina azken urteetan, aurrerapen handiak egon dira gai honen inguruan eta zaila egiten da emakumea gutxien duen hizkuntza eskolako eremuan aurkitzea.

Bestalde, aurreko puntuan ikusi dugun moduan, material didaktikoetan gizonezkoari emakumezkoari baino aipamen gehiago egiten zaizkio. Pertsonaiak, pertsona taldeak, komunitateak eta kultura izendatzeko termino ohikoena maskulino generikoa izaten da -Maskulinoa pluralean- eta kolektibo mistoan izendatzeko moduren bat etortzen da, izan ere, izendapen femeninoak nahasmenak sortzen ditu. Gainera, norbanakoetan hitz egiten dugunean, bere testuinguruaren arabera izaten da: kontuan hartzen badugu eskoletako testuliburuak ikasleen prestakuntzarako prestatuta daudela, deskribatzen dituzten ekintzek informazio gutxi eskaintzen digute eta ohikoena da, pertsonaiak gizonezkoen ereduarekin identifikatzea. Kontuan hartzen badugu testuliburuak prestakuntza prozesuko ikasleei zuzenduta daudela, deskribatutako ekintzak gertatzen diren testuinguruei buruzko informazio urriarekin, ohikoena pertsonaiak gizonezkoen ereduarekin identifikatzea da (Gargallo eta Pérez, d.g.).

Velascoren (2017) arabera, hizkuntza ez inklusiboa eta matxista kaltegabea dirudi baina femeninoaren ikusezintasun argia du bere baitan. Maskulino generikoa erabiltzeak emakumeak bigarren plano batean geratzea bultzatzen du. Hizkuntza inklusiboa egunerokotasunean erabiltzea komenigarria izango litzateke, izan ere, honen erabilpenak harritzen bagaitu, hizkuntza maskulino generikoaren gehiegikeria dagoelako izan daiteke.

Hitzen erabilera inklusiboa eskolan hitz egitean eta idaztean bultzatuko balitz, emakumeen figurarekiko zenbait pentsamendu, ideia eta jarrera aldatuko lirateke orain ezagutzen diren moduarekin alderatuz. Neskak beren buruarekiko autoestimu handiagoa izateko mutilekin alderatuta ikus daitezten, jada ez da aurrean duten gutxiagotasun edo menpekotasunaren irudia, ikuspegi hierarkikoa saihestuko litzateke eta mutilen aldetik ikasiko lukete errespetu handiagoa izaten. Normalizatuta egongo liratekeen egoerak normalizatuko lirateke.

3.4 EMAKUMEAREN PAPER A ESKOLAN

Ikusi dugu jada, eskoletako irakaskuntzaren eboluzio prozesua genero rolen erreprodukzioaren arabera sailkatzen dela. Beraz, eskolan desberdintasunak ematen dira eta emakumeak sexu-roletan hezten dira; hezkuntza mistoetan, neska eta mutilentzako hezkuntza berdina eskaintzen zitzaaien baina denborarekin ikusi dute hau ez dela nahikoa izan. Ondorioz, aurrerago berdintasunean oinarritutako hezkuntza sortu zen non helburu bezala genero desberdintasunak ezabatzea dituen, hezkuntza pertsona guztientzako berdina delako.

Segregazioa oinarri zuten eskolek, ikasleak generoaren arabera banatzen zituzten ikasgeletan eta curriculum ezberdina izaten zuten, bata mutilentzako eta bestea neskentzako. Horrez gain, zenbait oztopo edo zailtasun sortu zitzaizkien emakumeei goi mailako hezkuntzara sartzeko, edota oinarrizko irakurketa, idazkera eta matematika erakusten zitzaizkien, emakumeak etxeko espazioan bakarrik egon behar zirelako.

Ipar Europako eta Estatu Batuetako herrialdeetan, eskola mistoak lehenago sortu ziren Espainia bezalako herrialde katolikoetan baino. Emakumeek josten, sukaldatzen, errezatzen edota umeak zaintzen ikasten zuten, *beraien lana* hori zelako. Espainian 1970. urte arte, ez zen gainditu Hezkuntzaren Lege Orokorra, hau hain zuzen ere: Abuztuaren 4ko 14/1970 lege organikoa, Hezkuntza eta Hezkuntza Erreformaren Finantziaketa Orokorra. Baina aldaketa honek ez zuen balio berdintasunean oinarritutako hezkuntza bat bermatzeko, izan ere, neskak eta mutilak berdina ikasten hasi ziren, curriculum bera izaten baina beste arlo batzuetan ezberdintasunak nabari ziren oraindik. Barffusón, Revilla eta Carrilloren (2010) esanetan, eskola segregatuetan begi-bistakoa zen sexismoa. Eskola mistoetan aldiz, ez zen hain nabaria baina irakasle eta ikaslearen arteko interakzioan, berdin transmititzen ziren genero rol horiek.

Ackerrek (1995) dioenez, gizonetakoek tradizionalki izaera zientifikoa edo teknikoa zuten tituluak aukeratu zituzten eta emakumeetakoek literatura, hezkuntza edo osasunarekin lotutakoak. Izaera femeninoa zuten lanbide horiek gutxi baloratuak ziren, emakumeek burutzen zituztelako. Eta hezkuntza arloan irakaskuntza emakumeekin lotu

denez, horrek denbora luzez erdi profesioztat hartu izan da (Castillo eta Gamboa, 2013b).

3.5 HEZKUNTZA EZ FEMINISTA BATEN ONDORIOAK

Emakumearen egoera aztertu eta gero, bai hezkuntzan bai soziokulturalki, ikus daiteke nahiz eta aurrerapenak egon, gaur egun desberdintasunak daudela oraindik. Atal honetan, gizartea tradizionalki hezteak ekartzen dituen ondorioak azalduko ditut, ikuspuntu patriarkal eta androzentrista batetik. Ondorioz, gizartea aldatzearen eta genero arloan heztearen garrantzia azalduko dut.


Genero indarkeria feminismoak duen borrokarik larrienetarikoa da. Castillo eta Gamboak (2013d) esaten dutenez, gaur egun gizonetzkoak oraindik indarkerian hezten zaie eta ohikoa da, hilabetero berrietan gizonen eskuetan emakumeren bat akabatu dutela azaltzea. Violencia de genero (2020) webguneak dioenez, 2020. urtean 43 emakume hil zituzten Espainian, genero indarkeria dela eta. Azken 10 urte hauetan, 603 emakume hil dituzte herrialde honetan. Violencia de genero (2018) webguneak dioenez, 2018. urtean, 50 emakume hil zituzten eta hauetatik 14 emakumek salatu zuten, hau da, %28k. Salatu zuten emakumeetatik 10ek, babes legea zuten aplikatuta eta hauetatik 5ek, lege hau martxan zeukaten. Indarkeria matxistagatik akabatutako emakumeen artean, %64 Espainian jaiotakoak ziren; %2ak, 18 eta 20 urte artean zituen, %14ak 21 eta 30 urte artean eta %14ak, 60 urte baino gehiago; %62ko kasuetan, erasotzailea eta biktima batera bizi ziren eta %66en artean, bikote harremana zen. Erasotzaileen %62a, Espainian jaiotakoak ziren eta hauetatik %31k, 41 eta 50 urte bitartean zituen. Erasotzaileetatik %22k, 60 urte baino gehiago zituen eta %18ak, bere buruaz beste egin zuen. 2018. urtean, genero indarkeriaren biktima izan diren hildako emakumeen hilabeteko batezbestekoa 4,2koa izan zen. Eraildako 50 emakumeetatik %12ak (6 emakumek) ezgaitasunen bat zuen. 2018. urtean, 41 haur geratu ziren umezurtz, genero indarkeriagatik eraildako emakumeen ondorioz.

Calderonek (2009) dio, indarkeria lehertu egiten dela gerrate baten antzera eta forma kolektiboan, bi gobernu edo gehiagok parte hartuta, modu intimoagoan familiaren barruan edo sozialki kaleetan. Egoera hori aztertzeko, Galtungek indarkeriaren triangela proposatzen du (1. irudia):

- Egiturazko indarkeria: gizarte egitura baten barruan gertatzen diren bidegabekeriak eta desberdintasunak dira. Hemen, errepresioa, esplotazioa eta marjinazioa nabarmentzen dira, egitura bortitz gisa.
- Kultura indarkeria: erlijioaren, ideologiaren, hizkuntzaren, artearen eta zientziaren bidez gauzatzen diren kulturako alderdiek indarkeria zuzena edo egiturazkoa justifikatzen edo legitimatzen dutela erakusten da.

- Zuzeneko indarkeria: ikusgai diren kalteak dira: heriotza, zaurituak, errefuxiatuak edota materialen suntsiketa.

Triángulo de la Violencia - Johan Galtung



1. irudia. Indarkeriaren hirukia. Iturria: Redaly.org

Egiturazko indarkeria eta indarkeria kulturala, indarkeria ikusezinak dira baina indarkeria zuzena ikusten da. Emakumeek jasaten duten indarkeria hobeto ulertzeko, icebergaren metafora dago. Icebergean ikusten den zatia, indarkeria fisikoa edota hilketa kokatzen da baina ikusten ez den zatian, gizarteari lotuta dago (2. irudia).



2. irudia. Genero indarkeriaren iceberg-a. Iturria: Amnistia International España.

Emakumeak sexu maskulinoaren beldur hezi izan dira beti; haiek dutelako boterea eta kaltea egin dezaketelako. Askotan, horrelako esaldiak entzuten ditugu, “ez joan etxera bakarrik, zerbait gerta dakizuke eta”, eta gero, biktimari botatzen zaio kulpazanteko moduagatik edota bakarrik joateagatik. Gizarte honetan dagoen akatsa hau da: gizonezkoen portaera mota hauek normalizatuta daudela eta emakumeak kontuz ibili

behar direla, mutilei txikitatik -tratu txarrak, hizkuntza sexista, kaleko jazarpena, umiliazioa, sexu abusuak, etab.- gaizki daudela erakutsi beharrean.

Genero indarkeriaren aurkako neurriak eskola etapatik hartzea oso garrantzitsua da, nerabeei maitasun erromantikoaren mitoaren ideia deseraikitzen laguntzen dielako, izan ere, etapa hauetan lehenengo maitasuna eta harreman sexualak izaten hasten dira. Pop kulturak dio, guztiok maitasuna aurkitu behar dugula eta horretarako, kosta ala kosta, maitasunarengatik sufritu eta borrokatu behar dugula eta zure bizitza osorako bikotea aurkitzeak, pertsona gisa beteta sentitzen laguntzen gaituela erakusten digu, "maitasunak dena merezi duelako". Tribuna Feministaren (2016a) artikuluan agertzen denez, Emakumeentzako Andaluziako Institutuak (IAM) ikerketa bat egin du jakin ondoren, emakume nerabeen %37,2k arreta psikologikoa jaso zutela genero indarkeriaren biktimen eskutik, gertatu zitzaizkien arrazoia zein zen jakiteko. Lan honek ondorioztatzen du, maskulinitate eredu hegemonikoa genero indarkeria jasaten duten bikoteen sexu harremanetan islatzen dela. Nerabezaroan genero indarkeriaren lehen sintomak jendearen aurrean jelsia eta umiliaziotik hasi eta telefono mugikorren edo sare sozialen kontrola hartu arte. Horrelako ekintzak burutzen dituzten gizonak maitasun patriarkalaren idealean justifikatzen dira, non neskaren gaineko kontrola, jabetza edo gehiegizko babesa kulturaren bidez normalizatzen diren.

Maitasunagatik sufritu behar denaren ideia kultura, filmen, liburuen, telesailen edo abestien bidez transmititzen da eta neska asko txikitatik honekin identifikatzen dira, ideia hau barneratu dutelako. Gazteek mezu bera jasotzen dute, baina beraien jarrera neskak hunkitzea da eta indarkeriaz jokatzeko aitzakia zela izaten dira. Neskentzat ondorio psikologiko izugarriak izateaz gain, umiliazioen, irainen bidez, sexu ekintza burutzerakoan adostasun faltsua sentiarazteagatik, aurrerago sortzen den genero indarkeriaren hasiera da.

Genero indarkeriaz gain, badaude ondorio gehiago, aldi berean, arestian aipatutako guztiarekin lotura zuzena dutenak. Maila psikologikoan, gizarte sexistan bizitzeak emakumeen autoestimuan eragiten du. Eskatutako genero rola eta estereotipoak jarraitzea lan nekagarria izan daiteke eta are gehiago, ekintza asko ikusezin edo bertan behera utziko direla kontuan hartuta. Besteek onartuak edo maitatuak sentitzeko betetzen ez dituztenean, eragin negatiboa izango du pertsonaren autoestimuan. Txikitan, gizonetakoak eta emakumetakoak nahiz eta eremu edo testuinguru berdinean hezi, gizonak gauza batzuk egiteko aukera izaten dute emakumeekin konparatuz gero eta honek, gutxiagotasun sentimendua eragin dezake: menpekotasuna, pertsona autonomo gisa bere burua bete ezin izana... Aipatu beharra dago depresioa jasateko aukera areagotzen duten arrisku faktoreak direla ere. "Genero

depresioa emakumeek soilik bizi duten nahastea da, eta horren arrazoiak emakumezkoen menpekotasuna eta genero indarkeria eragiten dituzten sozializazio patriarkaletik eratorritako desberdintasun estrukturalak dira" (Tribuna Feminista, 2016b). Maila psikologikoan, barneratutako misoginia nabarmendu behar da bai gizonezkoetan, eta are okerrago, emakumezkoetan. Misoginia, emakume izateagatik edo emakumezko guztiaren aurrean, gaitzespen jarrera da. Gizonen aldetik, hainbat agerpen ditu, aipatutako genero indarkeria edo diskriminazioetatik hasi eta emakumeen sexu objektibazioraino. Hala ere, emakumeen aldetik badirudi beste emakumeekiko gaitzespen horrek haien artean lehiakorrak izatera eta banatzera eramaten dituela. Nerabegarotik, neskek lehiak izaten dituzte gizonezkoen arreta erakartzeko eta ezaugarri fisikoei garrantzi handia ematen diete, autoestimu arazoak sortuz: baloratuak sentitzeko, inguruko mutilei gustatu behar eta, horretarako, erakargarriak izan behar dute. Hau da, - edertasun arauen arabera - gorputz ona izan. Txikitatik erakusten digute, gizonen arreta erakartzeko, argalak eta politak izan behar garela. Gizarte patriarkalak onartzen duen edertasun ideal hori mantentzeko, emakumeek presio handia jasaten dute eta ondorioz, elikadura-nahasteak pairatzeko aukera gehiago izaten dute. Maganto eta Cruzek (2000) esaten dutenez, gorputzaren irudiari eta elikadura-asaldurei buruz egindako ikerketa batek erakutsi du, norberaren gorputzarekin pozik ez egotea genero-arazoa dela. Elikadura-nahasteak, hala nola bulimia eta anorexia, pairatzen dituzten pertsonen % 90a nerabeak dira.

Zaila da edertasunaren idealaren kontzepzio hori aldatzea, komunikabideen, publizitatearen, zinemaren eta horrelako medioek etengabe bonbardatzen baigaituzte, bakoitza den bezala onartzea erakutsi beharrean. Horrez gain, gorputz irudiaren distortsioa ere badago –errealitatean baino gizenagoa zarela sinestea eta are gehiago pisua galdu nahi izatea–, arazo hau batez ere emakumeetan gertatzen da. Edertasunaren idealek, elikadura-nahaste posibleak sortzeaz edo ondorio psikologikoak uzteaz gain, emakumearen objektibazioa sustatzen laguntzen dute, hala nola, publizitatea, ikus-entzunezkoen mundua, negozioak, etab. bezalako munduetan. Emakumearen gorputza saltzen den objektu gisa irudikatzen da edota kontsumo produktu gisa baina ez pertsona bezala.

Esparru politiko edo ekonomikoari dagokionez, berriro ere, ikusezintasunak oso eginkizun garrantzitsua du, izan ere, goi karguak edo botere postuak betetzen dituzten emakumeen kasuan, gizonezkoena baino askoz kopuru txikiagoa da. Soldataren gaian, gizonen eta emakumeen artean aldeak egiten dira; lan bera egiten dute eta emakumeek gutxiago kobratzen dute.

Feminismoak errealitate hori modu kolektibo eta kritikoa aldatzeko ahalegina egiten du, emakumeak esparru publikoan, pribatuan edo / eta domestikoan esplotatuak izan ez daitezzen.

4. GRAL-AREN HELBURUAK

- Gaur egun jarraitzen duten generoaren araberako diskriminazio egoerak aztertzea.
- Genero rol eta estereotipoek eragindako ondorio sozialak analizatzea.
- Hezkuntzaren bidez, bizitzako arlo guztietan genero berdintasuna lortu daitekeela egiaztatzea.

5. ATAL PRAKTIKOA

5.1 METODOLOGIA

Parte hartzaileak

Nire atal praktikoko parte hartzaileak bi multzotan banatu ditut. Alde batetik, ikasleak eta beste alde batetik, irakasleak. Ikasleen kasuan, unitate didaktikoa aurrera eramateko 24 ikaslek parte hartu dute. Gauza da, ikastetxeko hezkidetzatza taldeari nire unitate didaktikoa erabilgarria eta hezitzailea zela iruditu zitzaiela, eta 4. mailako beste bi klaseetan ere 2. eta 3. dinamikak (Nire mundua eta nahi dudana mundua eta mila kolore) egin ditudala. Hau da, 4. mailako A, B eta D geletan. Beraz, lehenengo (Formakuntza txikia) dinamikan, 24 hurrek parte hartu dute, bigarren eta hirugarren dinamiketan 73 ikaslek parte hartu dute eta, laugarren (Transexualitateari buruzko hitzaldia) eta bostgarren (Feminismoaren inguruko ebaluazioa) dinamiketan, 24 hurrek. Honetaz gain, GRALarekin lotutako inkesta bat pasatu nien nire ikasgelako 24 hurrei. Irakasleen kasuan, galdetegian 6 irakaslek hartu dute parte. Hauek, Lehen Hezkuntzako maila ezberdinetako tutoreak dira: 1. 2. 3. 5. mailako tutore bana eta 4. mailako bi tutore. 6. mailako tutorerik ez nuen izan, Ikastetxe honetan 6. mailarik ez dagoelako. Irakasle hauen artean, 3 gizon eta 3 emakumek parte hartu dute. Emakumeen kasuan, 30 eta 39 urte bitartekoak dira, Gipuzkoa eta Arabakoak eta 6 eta 14 urte bitarteko lan esperientzia dute. Gizonak aldiz, 39 eta 42 urte bitartekoak dira, Arabakoak eta 18 eta 23 urte bitarteko lan esperientziarekin.

Erabilitako tresnak

Atal praktikorako erabili ditudan tresnak, unitate didaktikoa, galdetegia eta galdera itxiak eta irekiak izan dira. Unitate didaktikoaren kasuan, nire txostena sortu nuen eta fitxak, material manipulatioa, bideoak eta hitzaldia erabili nituen. Unitate didaktikoa amaitu eta gero, nire ikasgelan galdetegi bat pasatu nuen ikasleek bakarka betetzeko. Galdetegi horretan, genero rol eta estereotipoak, matxismoa eta hezkidetzatza bezalako gaiei buruz galdetu nien (Ikus. A eranskina).

Galdera ireki eta itxiak berriz, 6 irakasleei pasa nizkien. Guztira 25 galdera daude, Pedagogia Feministaren inguruan; bai/ez erantzunak eta arrazoitzeko galderak (Ikus. B eranskina).

Prozedura

Unitate didaktikoa prestatzeko garaian, ikasleentzako material hezitzailea eta erabilgarria sortzea nahi nuen, beraien etorkizunean aplikatu dezaketena. Unitate didaktiko hau sortzea ez da erraza izan, Pedagogia Feminista oso gai zabala delako eta ikasleentzako garrantzitsua eta egokia izatea nahi nuen, oso luzea eta zaila izan gabe. Gainera, beraien errealitatera gerturatu nahi nuen eta beraien egunerokotasuna betaurreko moreekin ikustea. Horretarako, nire GRALeko atal teorikoa hartu nuen, momentu horretan ikasleei interesatu zezakeena aukeratu nuen eta teoria praktikara egokitu nuen, internetaren laguntzarekin, ahalik eta dinamika praktikoenak sortuz. Behin hau sortuta, nire eskolako tutoreari komentatu nion esku hartzea eta hau burutzeko behar nituen orduak eman zizkidan, 7 ordu hain zuzen ere. Ia unitate didaktiko erdian geundela 4. mailako beste klaseetako tutoreak etorri zitzaizkidan beraiek ere, nire unitate didaktikoko dinamika pare bat burutu nahi zituztela komentatuz. Beraz, beste bi klaseentzako materiala prestatu nuen eta tutore hauek gela bakoitzerako 2 ordu eman zizkidaten dinamikak aurrera eramateko eta pedagogia feministaren inguruan hitz egiteko.

Ikasleen galdetegiari dagokionez, unitate didaktikoa burutu eta gero pasatu nien. Hau prestatzeko garaian, ikasleen barne ezagutzak eta gizarteak noraino eragiten dien sakonago aztertu nahi nuen beraz, 25 galdera prestatu nizkien egunerokotasunean kalean edo etxean entzun ditzaketen esaldiak idatziz. Hau prestatzea unitate didaktikoa prestatzea baino errazagoa izan zen, gure egunerokotasunean oso barneratuta dauden esaldiak direlako baina ikasleei egokitzea eta beraiek kontzientziatzea ez zen erraza izan.

Irakasleen galdetegia aldiz, nire GRALaren teoria oinarri izanda sortu nituen galderak. Galdetegi hau ikasleena baino osoagoa izan zen; feminismoa, matxismoa, pedagogia feminista, eskolako curriculum, curriculum ezkutua, hizkuntza, hezkidetzak, gizarte matxista, familiaren eragina etab. bezalako gaiei buruzko galderak izan ziren.

Hauekin kontaktuan jartzeko, nire tutorearen laguntza izan nuen eta gure ordu libre batean gelaz gela joan ginen nire inkesta orriak banatzera. Hauek betetzeko hilabete bateko epea eman nien, martxo osoa hain zuzen ere eta dudarik izanez gero, niregana etortzeko esan nien. Ikusita ebaluazio bileretan zebiltzala, posta bidez bidali nizkien inkestak, beraiantzat erosoagoa izateko. Izan ere, batzuk epea luzatzeko eskatu zidaten eta egun batzuk gehiago eman nizkien. Behin hauek inkestak amaitzean, posta

bidez bidali zizkidaten galdetegiak. Beraien geletatik pasa nintzenean, ez zidaten inongo arazorik jarri inkesta betetzeko, guztiz kontrakoa, oso gai garrantzitsua zela esan zidaten eta gustu handiz beteko zutela.

5.2 PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

Unitate didaktiko honetan, feminismoaren gaia jorratuko dugu Lehen Hezkuntzan. Jada, marko teorikoan ikusi dugu hezkuntza feminista batean heztearen garrantzia zein den eta txikitatik hezkidetzan edota koedukazioan oinarritutako hezkuntza eskaintzea ezinbestekoa dela, gizarte justuago bat sortzeko.

Haurrak txikitatik estereotipo eta roletan oinarritzen den gizarte matxista batean hezten dira eta eskolaren lana ezinbestekoa da berdintasunean oinarritutako hezkuntza emateko. Beraien hezkuntza garapena osoa eta justua izan dadin, unitate didaktiko hau sortu dut gizarteko errealitatea zein den ikusteko eta ikasleak kontzientziatzeko.

Unitate didaktiko honetan, 5 dinamika ezberdin azalduko dira non bakoitzak gai bat jorratuko duen eta ebaluatzeko dinamika bat izango duen. Dinamika hauen helburua, feminismoa zer den ikastea eta honekin lotutako gaiak eta terminoak ezagutzea da. Unitate didaktiko honen helburu garrantzitsuena ikasleak kontzientziatzea da, ez teoria ikastea (Ikus. D eranskina).

1. DINAMIKA: Formakuntza txikia

Azalpena: Lehengo saio honetan, beraien aurrezagutzak zeintzuk diren ezagutuko ditut. Horretarako, feminismoaren inguruko galdera batzuk egingo dizkiet eta hau erantzun ostean, oinarritzko terminoen fitxa pasako diet bakarka betetzeko (Ikus. I.1 eranskina). Gero, fitxa horiek jasoko ditut eta termino horiek azalduko dizkiet Prezi erabiliz (Ikus. I.2 eranskina). Bukatzeko, gai honen inguruan eztabaidatzen ibiliko gara. Eztabaida honetan, gizartean emakumearen paperari buruz hitz egiten egongo gara eta hezkidetzaren garrantziaz.

2. DINAMIKA: Nire mundua eta nahi dudan mundua

Azalpena: Generoa, rola eta estereotipoak zer diren errepatatuko ditugu. Ondoren, arbelean biluzik dauden bi gorputz jarriko ditut eta taldeka, pertsona bat osatu beharko dute inguruan dituzten jostailuak, koloreak edota osagarriak erabiliz. Horretarako, talde bakoitzari arbelean jarri dudan materiala emango diet eta pertsona hau deskribatzeko orri bat. Hau egin eta gero, taldeka azaldu beharko dute zein pertsona egin duten eta honen zergatia. Zergatia esan eta gero, genero rol eta estereotipoek gizartean sortzen dituzten ondorioei buruz hitz egiten ibiliko gara (Ikus. II.1 eranskina).

3. DINAMIKA: Nire mundua eta nahi dudan mundua + Mila kolore

Azalpena: Aurreko dinamika bukatzeko, neskek nola egiten dituzte gauzak? eta Pirritx, Porrotx eta Marimotots: Gona gorria bideoak jarriko dizkiet. Ondoren, hau

komentatuko dugu eta taldeka, bakoitzak bere pertsona hartuko du eta ikasi duena azaldu beharko du. Adibidez, uste nuen gona neskontzako bakarrik zela (Ikus III.1 eranskina). Gero, LGTBIQ+ aren Power Pointa errebasatuko dugu eta Mundua guztiontzako beharko luke bideoa ikusiko dugu. Transexualitateari buruzko bideoa denez, esango diet Maddi Imaz datorrela hitzaldia ematera eta bere ahizpa transexuala dela, beraz, berarentzako galderak prestatu behar dituztela. Bukatzeko, hitzaldirako taldeka galdera batzuk prestatuko dituzte eta denon artean adostuko dugu zer galdetuko diogun (Ikus. III.2 eranskina). Hitzaldian zehar, LGTBIQ+ fobiak sortzen dituen ondorioei buruz hitz egiten egongo gara eta hezkidetzaren garrantziaz.

4. DINAMIKA: Transexualitateari buruzko hitzaldia

Azalpena: Aurretik emandakoa errealitatera hurbiltzeko, Maddi Imaz etorriko da transexualitateari buruzko hitzaldia ematera. Ondoren, aurretik prestatutako galderak egingo dituzte.

5. DINAMIKA: Feminismoari buruzko ebaluazioa

Azalpena: Feminismoa Lehen Hezkuntzan ikasleek egin duten garapena ikusteko, hasieran eman nien fitxa berbera emango diet eta horrekin ikusiko dut, zerbait ikasi duten edo ez (Ikus. I.1 eranskina). Baita, ahoz esango dute zer ikasi duten eta feminismoaren inguruan hitz egiten ibiliko gara eta honek hezkuntzan duen garrantziaz.

6. EMAITZAK

Behin unitate didaktikoa eta irakasleen galdetegia pasatu ostean, emaitza ezberdinak aterara dira. Horretarako, unitate didaktikoan ateratako emaitzekin hasiko naiz, ikasleena hain zuzen ere, eta irakasleen galdetegian aterara denarekin amaituko dut. Emaitza hauek, modu kualitatiboan eta kuantitatiboan banatuta egongo dira. Ondoren, nire klasean galdetegi bat pasatu nuen, bakarka egiteko, ados nago/ez dakit/ez nago ados erantzun posibleekin. Irakasleen kasuan, generoaren arabera ere, ezberdinduta egongo dira.

6.1 UNITATE DIDAKTIKOAREN EMAITZAK

Ikasleen emaitzak plazaratzeko, unitate didaktikoaren aurkibidea jarraitu dut. Hau da, lehenengo dinamikarekin hasiko naiz eta bosgarren dinamikarekin amaitu. Dinamiken emaitza bakoitzean zenbat ikaslek parte hartu duten idatzi dut. Irakasleen kasuan, ez dut generoa aztertu, baizik eta aterara diren erantzunen arabera.

1. DINAMIKA: FORMAKUNTZA TXIKIA

(Ikus. E eranskina)

Zer da matxismoa?

24 ikasleek, matxismoaren terminoa gizonak emakumearen gainean egiten duen edozein indarkeria motarekin lotu zuten. Ikasleak gai ziren definizio motz bat idazteko

edota adibideak idazteko. Definizio gehienetan, gizon batek emakume bat hiltzearekin lotu zuten, bakarrik emakumea izateagatik hiltzea. Adibideetan aldiz, indarkeria fisikoa, psikologikoa, gizonak emakumeei egiten dizkieten debekuak edota sorginen historia ere sartu zuten. Klaseko mutil batek, Maluma abeslaria matxista dela kontsideratzen zuen.

Zer da feminismoa?

24 ikasleetatik, 9k bakarrik erantzun zuten galdera hau. Idatzitako definizioen artean gehien errepikatzen zena, nesken alde borrokatzea izan zen. Baita, matxismoaren aurka egitea eta gutxi batzuk, gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren alde borrokatzea idatzi zuten.

Nesken eta mutilen artean ezberdintasunak daudela uste duzu (nortasunean, janzteko eran, jostailuetan, hezteko eran...)? Zergatik?

24 ikasleetatik, 17k berdinak garelara erantzun zuten: eskubide berdinak ditugula, bat ez dela bestea baino gehiago, nahi dugun arropa janzten dugula edota neskek kotxe jostailuekin jolastu dezaketela. Falta diren 7 ikasleek, ezberdintasunak daudela idatzi zuten. Beraien arrazoiak, pelikuletan gizonak direla beti heroiak eta neskek salbatzen dituztela, neskei gauza batzuk ez dizkietela uzten idatzi zuten eta txikitatik koloreka banatzen gaituztela, besteak beste.

Zenbat genero identitate mota daudela uste duzu? Hau da, bakarrik heterosexualak daude (emakume eta gizon baten arteko bikoteak) edota mota gehiago ezagutzen dituzu? Azaldu.

24 ikasleetatik 13k, hiru genero mota daudela uste zuten: heterossexuala, Gay eta bisexuala. Bisexuala idatzi zutenak bi ikasle izan dira bakarrik. Falta diren 11 ikasleek, ez zekizkiten zeintzuk ziren genero motak eta ez zuten ezer idatzi.

2. ETA 3. DINAMIKAK: NAHI DUDAN MUNDUA + MILA KOLORE

1., 2. eta 3. Tauletan, LH-ko klase bakoitzak talde txikietan sortu zituzten pertsonak agertzen dira, izenak eta bakoitzaren ezaugarriak hain zuzen ere (Ikus. F eranskina).

1. Taula. LH4 A klasea

IZENA	ADINA	SEXUA/GENEROA	ORIENTAZIO SEXUALA	ARROPA	ZER EGITEN DU?	BESTE EZAUGARRI BATZUK
SANTY		Zakila/Mutila	Bisexuala	Emakumeei egokitzen zaiena	Futbolean jolastu eta pilotua da	
JAIONE		Zakila/Mutila	Gay	Emakumeei egokitzen zaiena	Zibarekin jolastu eta astronauta da	Neska izan nahi du
ALONSA	20 urte	Neska/Alua	Bisexuala	Mutilei egokitzen zaien arropa	Futbolean jolastu eta pilotua eta dendaria da	Besazpian ileak ditu
OSIY	19	Alua eta	Bisexuala	Arropa ez	Futbolean eta	Makilatzea

	urte	zakila		estereotipatua	panpinekin jolastu lagunekin ibili eta irakaslea da	gustatzen zaio eta oso jatorra da
ALEXA	26 urte	Intersexuala		Arropa ez estereotipatua	Futbolekin jolastu eta irakaslea da	
SURGE	18 urte	Zakila/Mutila		Emakumeei egotzitako arropa	Makilatzea, futbolekin eta panpinekin jolastu. Dendaria da	Bere gorputza gustatzen zaio

2. Taula. LH4 B klasea

IZENA	ADINA	SEXUA/GENEROA	ORIENTAZIO SEXUALA	ARROPA	ZER EGITEN DU?	BESTE EZAUGARRI BATZUK
EMMA PATERSON GREYBAK RIDLEY		Alua/Neska	Lesbiana	Emakumeei egokitzen zaiena	Ordenagailuan ibili eta musika entzun. Zientzialaria izan nahi du	Ezin da zientzialaria izan emakumea delako eta bere orientazio sexualarengatik. Bere estiloa gustatzen zaio eta hori ez du inork aldatuko. Bere gurasoek esaten diote mutilak gustatu behar zaizkiola eta oso triste dago
PITI SOROA ZIENTIFIKOA		Zakila/Neska	Heterosexuala	Emakumeei egokitzen zaiena	Margotu. Zientzialaria da	Mutil baten gorputza du eta mutilen arropa eramatea gustatzen zaio
SAGI		Zakila/Mutila		Emakumeei egokitzen zaiena	Futbolekin jolastu. Irakaslea da	Neska izan nahi du eta amak esaten dio zein arropa jantzi behar duen
ENARA LOPEZ DUQUE		Alua/Neska		Emakumeei egokitzen zaiena	Futbolekin jolastu eta kotxeak. Dendaria da	Mutila izan nahi du baina bere gurasoek neska dela esaten diote eta panpinekin jolastera derrigortzen dute.
PEREJIL CALVO CASTRESANA ALAMINOS GIELLEA		Zakila/Mutila		Mutilei egokitzen zaiena	Kotxeak gustatzen zaizkio eta autobus gidaria da	
LUCIUS	30 urte	Zakila/Mutila		Arropa ez estereotipatua	Gitarra jo eta Toys "R" Us eko denda du	Neska izatea gustatzen zaio eta Alemaniakoa da

3. Taula. LH4 D klasea

IZENA	ADINA	SEXUA/GENEROA	ORIENTAZIO SEXUALA	ARROPA	ZER EGITEN DU?	BESTE EZAUGARRI BATZUK
AITOR SANCHEZ		Zakila/Mutila	Gay	Emakumeei egokitzen zaiena	Futbolekin, panpinekin, autoekin eta zibarekin jolastu. Medikua, pilotua eta irakaslea da	
ASIER	21 urte	Trabestia	Heterosexuala	Emakumeei egokitzen zaiena	Panpinekin eta tenisean jolastu, patinetan ibili eta	

					margotu. Musikaria eta dendaria da	
MARIA JESUSA	17 urte	Alua/Neska		Arropa ez estereotipatu a	Artea eta ordenagailuak gustatzen zaizkio. Astronauta da	Neska izan nahi du eta amak esaten dio zein arropa jantzi behar duen
MAREN	16 urte	Neska		Emakumeei egokitzen zaiena	Futbola, panpinak eta Snoopy gustatzen zaizko. Autobus gidaria da	
DAVID MARIA EGAÑA LAMAYZI RECERO ORTEGA		Zakila/Mutila	Heterosexuala	Neskei egotzitako arropa	Mugikorrek in jolastu eta zientifikoa da	
FELIXA	15 urte	Zakila eta alua	Intersexuala	Arropa ez estereotipatu a	Ordenagailuan ibili, gimnasia artistikoa egin eta kirola egin. Zientifikoa da	Oso alaia da

4. DINAMIKA:TRANSEXUALITATEARI BURUZKO HITZALDIA

Hitzaldiko galderak prestatzeko, hasieran zailtasunak izan zituzten, ez zekitelako zer galdetu baina azkenean, taldeka galdera batzuk sortu zituzten. Gehien errepikatu ziren galderak hauek izan ziren: bere datu pertsonalak, orientazio sexuala, pertsona bezala nola sentitzen zen eta orain (sexua aldatu ondoren), eskolako urteak nola bizi izan zituen, gizarteak nola tratatzen zuen eta orain, bere familiaren erreakzioa eta erantzuna zein izan zen, Maddi (hitzaldia eman zuena) nola sentitzen den bere ahizparekin kaletik doanean zein diskriminazio mota jasan izan duen eta zer den gehien gustatzen zaiona egitea. Hitzaldian zehar, ikasleak oso adi egon ziren, inoiz ez zutelako horrelako kasurik ezagutu eta paperean idatzitako galderez gain, hitzaldian zehar sortzen zitzaizkien galderak esaten zituzten (Ikus. G eranskina)

5. DINAMIKA: FEMINISMOARI BURUZKO EBALUAZIOA

Denbora falta egon zela eta, batzuk ez zituzten galdera batzuk erantzun (Ikus. H eranskina).

Zer da matxismoa?

24 ikasleetatik gehienek idatzi zutena hau izan zen: gizon batek emakume bati tratu txarrak ematea edota beraren gainean egiten duen kontrola, emakumeari egiten zaion indarkeria psikologikoa eta fisikoa eta azkenik, haur batzuk ez zuten galdera hau erantzun.

Zer da feminismoa?

Gizon eta emakumeek berdintasunaren alde borrokatzea, adibidez manifestazioak egitea Martxoak 8an. Baita, neskek matxismoaren kontra borrokatzea edota nesken alde borrokatzea. Batzuk ez zuten galdera hau erantzun.

Neska eta mutilen artean ezberdintasunak daudela uste duzu (nortasunean, janzteko eran, jostailuetan, hezteko eran...)? Zergatik?


Sexuaren arabera bai, mutilek zakila dute eta neskek alua baina beste guztian berdinak gara. Beste batzuk, badaude ezberdintasunak, oraindik neskei ez diete uzten futboleko jolasten neskek direlako. Bai, gizartean matxismoa dagoelako. Bai, jolas batzuetan ezberdintasunak daude, adibidez jostailuetan. Berez ez daude ezberdintasunak baina txikitatik barneratzen dugu nolakoak izan behar garen etab. Beste askok, esan zuten ez daudela ezberdintasunak denok berdinak garelako eta eskubide berdinak ditugulako.

Zenbat genero identitate moda daudela uste duzu? Hau da, bakarrik heterosexualak daude (emakume eta gizon baten arteko bikoteak) edota mota gehiago ezagutzen dituzu? Azaldu.


LGTBIQ+ idatzi zuten klaseko guztiek eta letra bakoitzaren esanahia zen den.

6.2 FEMINISMOAREN INGURUKO GALDETEGIA. ERANTZUNAK


24 ikasletik 23k erantzun zuten feminismoaren inguruko galdetegia, 25 galderez osatuta dagoena. Izan ere, pandemia egoera dela eta, neska bat konfinatuta egon zen (Ikus. I eranskina).



"Arrisku egoera baten aurrean, mutilek neskek babestu behar dituzte"




"Amak bakarrik zaindu behar ditu bere seme-alabak"



"Etxeko lanak, gizonak eta emakumeek egin behar dituzte"




"Gizonak, emakumeek baino hobeto gidatzen dute autoa"




"Futbola, neskenzako eta mutilentzako kirola da"



"Denok gara berdinak, emakumeak eta gizonak"




"Gizonak emakumeek baino indartsuagoak dira"




"Neskek neskekin eta mutlak mutlekin egon behar dira"




"Talde lanetan, normalean mutilek agintzen dute"



"Normala da mutilek neskei jotzea, arazoren bat dagoenean"










"Neskekin ibiltzen diren mutlak, ahulagoak dira"



"Neskei arrazola eman behar zaie isilik geratzeko"







6.3 IRAKASLEEI EGINDAKO GALDETEGIA. ERANTZUNAK

Irakasleei egindako galde-tegi honetan, bai, ez eta ez du erantzun/ez daki erantzunak dituen grafikak agertzen dira (Ikus. J eranskina).

1. eta 2. galderen emaitzak 1. eta 2. grafikoetan agertuko dira eta azpian beraien erantzunak.



1.Grafikoa. 1. galdera



2.Grafikoa. 2. galdera


1. Grafikoan denek erantzun dute ezetz, ez direla matxistak baina kontziente direla matxista kutsu hori inkontzienteki barneratuta dutela eta hori aldatzeko borrokan dabilzala.

2. Grafikoan, bi **gizonek** feminista izan nahi dutela idatzi dute baina oraindik lan handia egin beharko dutela kontziente dira. Batek esan du bera feminista dela eta honen alde borrokatzen duela. Bi **emakumeek**, ziurtasunez erantzun dute baietz, gizartean aldaketa bat egotea nahi dutelako eta batek bakarrik, feminista izan nahiko lukeela adierazi du baina aurretik lan handia duela egiteko.

3. eta 4. galderen emaitzak 3. eta 4. grafikoetan agertuko dira eta azpian beraien erantzunak.



3. Grafikoa. 3. galdera



4.Grafikoa. 4. galdera

3. Grafikoan, bi **gizonek** beraien ustez zer den idatzi dute eta batek esan du, berak ez dakiela zer den. Bi **emakumeek** beraien ustez zer den idatzi dute baina batek, zehazki zer den idatzi du gainera, artikulu bat txertatu du dokumentuan eta hezkuntzan egiten diren proposamenetan, gai honen inguruan jorratu zuela adierazi du.


Antzeko erantzunak ere egon dira, beraien ustez zer den idatzi duten irakasleek, honako hau idatzi dute: ikasleei bi sexuen arteko berdintasunean heztea, egunerokotasunean hiztegia, materiala etab. zaintzea, gizarte feminista bat sortzeko bidea etab.

4. Grafikoan denek erantzun dute baietz: kalean, telebistan, eskolan, familien artean... gizarte matxista batean bizi garelako.

5. eta 6. galderen emaitzak 5. eta 6. grafikoetan agertuko dira eta azpian beraien erantzunak.



5.Grafikoa. 5. galdera




6.Grafikoa. 6. galdera


5. Grafikoan denek esan dute baietz. Eskolan, gizartean dagoen matxista kutsu hori ezabatzen joan behar da baina familiek haurren hezkuntzan eragin handia dute eta beraz, dena eskolaren eskuetan ez dagoela.

6. Grafikoan, **gizon** gehienek ezezkoa esan dute; egunerokotasunean modu inkontzientean txertatzen ditugulako genero ezberdintasunak eta ikastetxeko lan konkretuak aztertzen hasten bagara, hor bai nabaritzen dela genero ezberdintasuna. Besteak baiezkoa esan du; egunerokotasunean ez dutelako sexu bereizketarik egiten. Bi **emakumeek** baiezkoa esan dute; ikastetxe honetan genero berdintasuna lantzen dela. Besteak ezezkoa esan du; eskola gizartearen islada delako.

7. eta 8. galderen emaitzak 7. eta 8. grafikoetan agertuko dira eta azpian beraien erantzunak.



7.Grafikoa. 7. galdera




8.Grafikoa. 8. galdera


7. grafikoan gehiengoek esan dute ezetz baina kontziente dira, irakaslearen lana dela materiala prestatzea eta gai honi garrantzia ematea.

8. Grafikoan, **gizonek** baiezkoa erantzun dute; berdintasunean oinarritutako gizarte bat eraiki nahi dutelako. **Emakumeek** baiezkoa erantzun dute; eskolan feminismoan oinarritutako materiala egotea ezinbestekoa dela, ikasle emakumeek erreferenteak etab. izateko, izan ere, ikasleak hezten ari dira eta ezinbestekoa da berdintasunean oinarritutako hezkuntza eskaintzea.

9. eta 10. galderen emaitzak 9. eta 10. grafikoetan agertuko dira eta azpian beraien erantzunak.



9. Grafikoa. 9. galdera




10. Grafikoa. 10. galdera


9. Grafikoan denak ezezkoan daude baina kontziente dira eredu horiek barneratuta dituztela eta horren kontra borrokatzen ari dira, batez ere emakumeak.

10. Grafikoan, **gizonek** baietz erantzun dute; genero guztietan rol berdintasuna transmititzen dutela bi sexuen goraipamena eginez justizia soziala eta gizarte etikoa lortzeko. **Emakumeen** esanetan, berdintasunean hezten saiatzen dira, beraien egunerokotasunean genero/sexu ezberdintasunik egin gabe eta denei garrantzia berdina emanez baina, batek esan du, hezkidetzatik haratago joaten saiatzen dela bera, pedagogia feministarantz.

11. eta 12. galderen emaitzak 11. eta 12. grafikoetan agertuko dira eta azpian beraien erantzunak.



11. Grafikoa. 11. galdera




12. Grafikoa. 12. galdera

11. Grafikoan, bi **gizonek** baietz erantzun dute, nahikoa jorratzen dela eta adibidez, Martxoak 8-ko eguna antolatzen dela. Besteak ezezkoa esan du, pedagogia feminista askoz estrukturalagoa izan beharko zela eta sakonagoa. **Emakume** denek ezetz erantzun dute. Egunerokotasunean eta naturaltasunez landu behar den zerbait dela erantzun dute, eta ez bakarrik egun puntual batzuetan.

12. Grafikoan, **gizon** batek baiezkoa erantzun du eta beste biek ezetz, materia gehiago txertatu behar dela. Bi **emakumeek** ezetz erantzun dute, adibidez proiektuetan feminismoa gehiago txertatu beharko zela edota planetan.

13. eta 14. galderen emaitzak 13. eta 14. grafikoetan agertuko dira eta azpian beraien erantzunak.



13. Grafikoa. 13. galdera


13. Grafikoa, bi **gizonek** erantzun dute eta baietz esan dute; inkontzienteki bada ere, transmititzen direla. Bi **emakumeek** baietz erantzun dute; oso barneratuta ditugula horrelako ereduak eta nahigabe transmititzen direla baina hori aldatzen daudela.



14. Grafikoa. 14. galdera


14. Grafikoa, hiru **gizonek** baiezkoa erantzun dute; ikusi besterik ez dagoela familia bakoitzaren barruan nor zein rol duen eta gizartean, gizon eta emakumearen arteko berdintasunik ez dagoela. Hiru **Emakumeek** baietz erantzun dute; "gizonen gizarte" batean bizi garela oraindik, ez dagoela bien arteko berdintasunik eta matxismoaz gain, mikromatxismoa oso zabaldua dagoela.

15. eta 16. galderen emaitzak 15. eta 16. grafikoetan agertuko dira eta azpian beraien erantzunak.



15. Grafikoa. 15. galdera


15. Grafikoa, **gizonek** baiezkoa esan dute; gizartean ez dagoelako berdintasunik, adibidez: lan baldintzetan, soldatetan eta oraindik, familia barruan emakumeek zainketaren rola esleituta dutelako, besteak beste. **Emakumeek** ere baiezkoa erantzun dute; gizarte matxista batean bizi garela eta emakumeek ez dituztela aukera edo baldintza berdinak, adibidez; lanpostuetan edota ama izan nahi dutenean.




16. Grafikoa. 16. galdera

16. Grafikoa, **gizonek** baiezkoa esan dute; ikasgelan hauekin lotutako iruzkinak entzuten dituztela eta komunikabideek ere asko zabaltzen dituztela ondorioz, gizartean oso onartuta daudela eta inkontzienteki esaten edo egiten dituztela horrelako ekintzak. **Emakumeek** ere baietz erantzun dute; gizartea oraindik matxista delako baina politiki-poliki hau aldatzen ari dela, feminismoari esker.

17. eta 18. galderen emaitzak 17. eta 18. grafikoetan agertuko dira eta azpian beraien erantzunak.



17.Grafikoa. 17. galdera




18.Grafikoa. 18. galdera


17. Grafikoan, **gizon** batek ezezko garbia erantzun du; oso zaila dela berdintasunean oinarritutako hezkuntza bat eskaintzea, urteetan eredu hauek jaso ditugulako. Beste biek ezezkoa esan dute baina dudarekin: familiaren araberrakoa dela uste dute, batzuk baietz eta beste batzuk ezetz, nahiz eta oso zaila izan berdintasunean oinarritutako hezkuntza ematea. **Emakumeek** ere ezezkoa esan dute baina ez da oso erantzun garbia izan; familien araberrakoa omen da, feminismoak bere eragina duelako eta familia batek hausnarketa sakona egiten badu, berdintasunean oinarritutako hezkuntza emango diela beraien seme-alabei.

18. Grafikoan, bi **gizonek** baiezkoa erantzun dute; gizarte matxista batean bizi garelako eta hori nabaritzen dela. Baita, nerabezaroan bikote kontuetan ere eragiten duela eta heldua zarenean konturatzen zarela gai horietaz. Hiru **emakumeek** baiezkoa esan dute: gure hezkuntza prozesuan gizarteak eta bertatik jasotzen dugun informazioak gure prozesuan eragina dutelako.

19. eta 20. galderen emaitzak 19. eta 20. grafikoetan agertuko dira eta azpian beraien erantzunak.



19.Grafikoa. 19. galdera




20.Grafikoa. 20. galdera

19. Grafikoan, **gizonek** baietz erantzun dute; emakumeentzako erreferentiek eta aukerak falta direla haien ahalduntzea lortzeko eta gizarte mota hau izanik, pertsonen desoreka nabaria dela. **Emakumeek** ere baiezkoa esan dute; biek esan dute honek txikitatik eragina duela, batez ere ikasketa arloetan baina batek esan du, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzatik aurrera nabariagoa dela, adibidez eskoletako testuliburuak gizonetan oinarritzen direlako.


20. Grafikoan, **gizonek** baietz erantzun dute; beharrezkoa dela hau erakustea eta feminismoan bizitzea, pertsonen arteko ezberdintasun horiekin akabatzen.

Emakumeek baietz esan dute; naturaltasunez erakutsi behar zaiela eta jaiotzen diren momentutik, zein gizarte motan bizi garen konturatzeko.

21. eta 22. galderen emaitzak 21. eta 22. grafikoetan agertuko dira eta azpian beraien erantzunak.



21.Grafikoa. 21. galdera




22.Grafikoa. 22. galdera

21. Grafikoan, **gizon** batek esan du baietz eta beste bi irakaslek, ezetz; historian zehar emakume erreferente asko egon dira hezkuntza munduan. Nahiz eta gaur egun emakumearen presentzia handia izan eskolan, ez zaio behar adina garrantzia ematen. Bi **emakumek** erantzun dute; geroz eta garrantzi handiago ematen zaiola emakumeari eta proiektuetan/ospakizunetan feminismoaren presentzia igotzen ari da.

22. Grafikoan, **gizonek** baiezkoa erantzun dute; ezinbestekoa dela ikasleak hezkidetzan hezteak, aniztasuna egon dadin eta aukeratzeko askatasuna. **Emakumeek** baiezkoa esan dute, gizartean feminismoa lortu nahi badugu ezinbestekoa da eskolan hezkidetzak lantzea. Gaur egun, eskola guztietan hezkidetzak plana dago.

23. eta 24. galderen emaitzak 23. eta 24. grafikoetan agertuko dira eta azpian beraien erantzunak.



23.Grafikoa. 23. galdera



24.Grafikoa. 24. galdera

23. Grafikoan, **gizonek** baietz erantzun dute; irakasleak ikasleengan eragina du eta hitzak transmititzen ditu, ondorioz ikasleengan ondorio negatiboak izango ditu. **Emakumeek** baietz erantzun dute; ikasleengan zuzenean eragiten du, irakasleak direlako haien erreferente eta gizarte feminista eta justua sortu nahi badugu, hizkuntza inklusiboa erabili behar da.

24. Grafikoan, **gizonek** erantzun dute; ondorioak ekarriko dizkiola ikasle horri, profil matxista hori erreproduzituko duela eta beraien bizitza indibiduala eta soziala

garatzeko garaian kalteak sortuko dituela. **Emakumeek** baiezkoa esan dute; ikaslearengan ondorio kaltegarriak izango dituela gizartean integrazteko, etorkizun batean bikote harremanetan... matxismoa barneratu eta normalizatuko duelako.

25. galderaren emaitzak 25. grafikoan agertuko dira eta azpian bere erantzunak.



25. Grafikoa. 25. galdera

25. Grafikoan, **gizonek** baiezkoa esan dute; irakasleak ahalik eta hezkuntza hoberena eskaini behar dielako ikasleei eta feminismotik datozen pertsonak bakarrik bermatu ditzaketelako hezkidetzeta eta berdintasuna. **Emakumeek** baiezkoa erantzun dute; ezinbestekoa dela pedagogia feministan oinarritutako hezkuntza eskaintzea, eredu matxistak identifikatzeko, gizarteko arlo guztietan diskriminaziorik ez egoteko, berdintasuna bermatzeko, aniztasuna...

7. ONDORIOAK

Behin hau dena amaituta, pedagogia feministaren inguruko hausnarketa egiteko aukera ematen digu. Bertan ikusi dugu zein garrantzitsua den ikasleak pedagogia feministan hezte eta ohartu gara, gizarteak zenbateko zailtasunak jartzen dituen berdintasunean hezteko. Genero rol eta estereotipoek eragindako ondorio sozialak analizatzea **lehenengo helburuari** dagokionez eta jasotako emaitzen arabera, ikasleei txikitatik genero rol eta estereotipoak transmititzen dizkiegu, nahiz eta inkontzienteki izan, bai familian eta bai eskolan eta Martinez-Martinek (2017) bere artikuluan adierazten duenez, txikitatik genero roletan hezten gara eta sozializazio horren arabera gure identitatea eraikitzen dugu. Irakasleei egindako inkestan, argi ikusi da, kontziente direla berdintasuna bermatzen ez duten jakintzak eta informazioa transmititzen dituztela.

Denborarekin, ezberdintasun hauek murrizten ari gara baina oraindik lan asko dago aurretik egiteko. Gaur egun jarraitzen duen generoaren araberako diskriminazio egoerak atertzea **bigarren helburuari** dagokionez eta jasotako erantzunen arabera, oraindik matxismoarekin lotutako ezaugarriak barneratuta ditugu, gizarte matxista, patriarkatu eta androzentrista batean bizi garelako, eta nahiz eta eskolan genero eta sexu berdintasuna sustatu, ikasleek eta irakasleek gizarte mota honen eragina barneratuta dituzte eta hori, eskolan islatzen da. Neska eta mutilak berdintasunean

hezteko, sistema ez patriarkatua izan behar dugu bestela ez dugu inoiz jakingo zenbaterainokoak diren sortutako ezberdintasunak (Marañón, 2019b).

Hezkuntzaren bidez, bizitzako arlo guztietan genero berdintasuna lortu daitekeela ikertzea **hirugarren helburuari** dagokionez eta jasotako erantzunen arabera, normalizatuta ditugu aurretik aipatutako jarrera eta ideologia hauek eta ikasleek etorkizun batean izango dituzten portaeren ondorio izango dira. Beraien familiengan edo gertuko pertsonetan ikusi dituzte ondorioz, beharrezkoa da familiak kontzientziatzea haien seme-alabak genero berdintasunean eta feminismoan oinarritutako balioetan hezteko, ahaztu gabe, familiek ikasleen hezte prozesuan izaten duten garrantziaz. Baita, eskolak haur bakoitzaren sexu-berdintasuna, aniztasuna, feminismoa... balioesten dituen baloreak eta jarrerak landu beharko lituzke, bai curriculumarekin bai curriculum ezkutuarekin. Ikasleen hezkuntza prozesua osoa izan dadin, inongo genero rol eta estereotiporik edota jarrera matxistarik izan gabe. Eskolan sartzen direnetik pedagogia feministan heztea ezinbestekoa da, gertatzen diren ezberdintasun horiek ezabatzeko eta koedukazioan hezteko (Cabeza, 2010).

Ikasleei dagokionez, lan honekin frogatu da ikasleen hezkuntzan eskolak eta familiek izugarrizko eragina dutela eta hauen eskuetan dagoela ikasle horien identitatea eta bere etorkizuna. Hezkuntzaren harira joz, ikasleak gai dira diskriminazio egoerak zeintzuk diren identifikatzeko eta genero berdintasunaren garrantziaz ohartzeko. Ikastetxeko ikasle guztiak berdintasunaren alde daude eta emakumearen ahalduntzearen alde borrokatzen dute. Argi ikusi da, genero rol eta estereotipo batzuk barneratuta dituztela baina hauek apurtzeko prest daude.

Irakasleei dagokienez, gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasuna agertu da. Emakume irakasleei dagokienez, feminismoaren gaian kontzientzia handiagoa dutela ikusi da eta emakumearen ahalduntzearen aldeko borroka handiagoa egin behar dela. Gizonen kasuan aldiz, gai honen inguruan kontzientziatuta daude eta berdintasunaren alde borrokatzen dute eta lortutakoa nahikoa dela adierazi dute. Hau da, hezkuntzan genero berdintasuna lortu dela adierazi dute. Ondorio orokor bezala, beraien buruarekin lanketa bat egin behar dute, gizarteak transmititu dien ideologia eta jarrera patriarkatu horiekin amaitzeko. Irakaslea ikasleen erreferentea da horregatik, gizartean arlo guztietan berdintasuna bermatu nahi badugu ezinbestekoa da irakasleek pedagogia feministan, koedukazioan eta hezkidetzan oinarritzea. Beraz, irakasleek etengabeko formakuntza jaso beharko dute eta hizkuntza inklusiboa erabiltzen ikasi (Aristizabal, Gómez-Pintado, Ugalde eta Lasarte, 2018).

Bukatzeko, eskolak badaki pedagogia feministan oinarritzen ez den hezkuntza batek ikasleengan ondorio negatiboak ekartzen dituela, batez ere emakumeei. Eta

eskola, oraindik testuinguru androzentriko batean murgilduta dago ondorioz, ikasleak eta irakasleak ere bai. Egia da historian zehar eta eremu legaletan, berdintasunaren aldeko aurrerapenak egon direla baina errealitatean, desberdintasunak ikusten dira oraindik, genero eta sexu bakoitzari rol, estereotipo eta erregela batzuk ezarriz, bakoitzaren askatasuna mugatuz. Beraz, oraindik maskulinoa denari garrantzi handiagoa ematen zaio femeninoa denari baino eta eskolak, honen influentzia izaten du. Eskolak gizon eta emakumearen aldeko berdintasuna lortzeko borrokatu behar du eta etorkizuneko hazia erein, gizarte justuago bat izateko. Horretarako, eskolan “betaurreko moreak” jantzen dituzten profesionalak egon behar dira, ikasleekin eta familiekin etengabeko lankidetzan ibiltzen direnak eta gizarteko errealitatea kritikatzeko dutenak. Justizia soziala bermatu behar da eta eskolak ezin ditu honen aurrean begiak itxi. Gizartean, feminismoa geroz eta gehiago aldarrikatzen da eta eskolak ezin du gai honen aurrean ez ikusiarena egin, oraingo eta etorkizuneko pertsonak hezten ari delako.

En una educación feminista, las frases que debemos emplear son aquellas que potencien su intelectualidad, sus valores, su personalidad y su físico. Las que la dejen explorar, crear y sentirse libre de expresarse en su esencia sin determinados estereotipos en la ropa, en las posturas, en su forma de hablar o de sentir. Deben ser frases que **la empoderen y le den confianza en sí misma para sentirse un ser completo sin depender de nadie más** (Anna Kubrick, d.g.).

8. MUGAK ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK

GRAL hau egiteko garaian, atal praktikoan izan ditut oztopo handienak. Alde batetik, ikasleekin dinamikak ondo egiteko denbora falta izan dut eta batzuk, presaka burutu genituen. Ondorioz, espero izandako emaitzak ez dira atera adibidez, ikasleekin bukaeran egindako idatzizko ebaluazioan, erdizka bete zuten eta pena handia izan da, dinamiketan asko ikasi dutelako eta hori azalertzeko denbora mugatua izan dutelako. Bestetik, irakasleekin aurrez aurreko elkarrizketak izatea gustatuko litzaidake baina pandemia egoera dela eta, ez dut aukera hori izan eta ondorioz, beraien inkestak berandu heldu zitzaizkidan eta honek lana atzeratu zidan. Bestela, tutoreek dinamikak egiteko askatasuna eman zidaten eta hori asko eskertzen dut.

Hobetzeko proposamenetan, sortutako unitate didaktikoa esanguratsua dela uste dut eta horri jarraipen bat eman diezaioket beraz, ikasleen dinamiketan ez nuke ezer hobetuko. Irakasleen kasuan aldiz bai. Irakasleek gai honen inguruan formakuntzak behar dituztela ohartu naiz, aurretik esandako guztia aldatzeko eta etorkizun hobeagoa izateko. Beraz, LAB sindikatuan, irakaskuntza arloan, pedagogia feministaren inguruko formakuntzak eskaintzen dituzte hilabetero eta horrelako formakuntzak eskolan ematea

ezinbestekoa izango litzateke; bertan, material didaktikoak, hezkuntzaren transmisioa nolakoa izan behar den etab. bezalako gaiak jorratzen dituzte. Bukatzeko, hobetzeko beste proposamen bat familiekin lanketa egitea izango litzateke. Horretarako, eskola elkarteekin, sindikatuekin, udaletxearekin... harremanetan jar daiteke eskolan formakuntza hauek emateko, adibidez. Ondoren, irakasleekin lankidetzan ibiltzea eta jasotako informazioa etxean aplikatzea: familiei material didaktikoa eskaintzea adibidez.

9. ERREFERENTZIAK

- Acker, S. (1995). *Género y Educación: reflexiones sociológicas sobre mujeres, enseñanza y feminismo*. Narcea.
- Aristizábal, P., Gómez-Pintado, A., Ugalde, A. I. eta Lasarte, G. (2018). La mirada coeducativa en la formación del profesorado. *Revista Complutense de Educación*, 29(1), 79-95.
- Barffusón, R., Revilla, J. eta Carrillo, C. (2010). Aportes feministas a la Educación. *Enseñanza e Investigación en Psicología*.
<https://socioeducacion.files.wordpress.com/2011/10/1fe28d01.pdf>
- Cabeza, A. (2010). Importancia de la coeducación en los centros educativos.
<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=3627975>
- Calderón, P. (2009). Teoría de conflictos de Johan Galtung. *Revista de Paz y Conflictos*, 2, 60-81. <http://www.redalyc.org/articulo.oa?id=205016389005>
- Castillo, M. eta Gamboa, R (2013a). La vinculación de la educación y género. *Revista Electrónica Actualidades Investigativas en Educación*.
<http://www.redalyc.org/pdf/447/44725654014.pdf>
- Castillo, M. eta Gamboa, R (2013b). La vinculación de la educación y género. *Revista Electrónica Actualidades Investigativas en Educación*.
<http://www.redalyc.org/pdf/447/44725654014.pdf>
- Castillo, M. eta Gamboa, R (2013d). La vinculación de la educación y género. *Revista Electrónica Actualidades Investigativas en Educación*.
<http://www.redalyc.org/pdf/447/44725654014.pdf>
- Coppolechia, F. (2008ko uztailak 30). *Una crítica feminista al derecho a parti de la noción de bipoder de Foucault*. 2020ko abenduaren 21ean hartuta.
<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=5037660>
- EAO, 172, zk., 2012ko ekainaren 19koa. <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2012-9664>
- EAO, 187, zk., 1970ko abuztuaren 4koa. <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-1970-852>

- EAO, 313, zk., 2004ko abenduaren 28koa. <https://www.boe.es/buscar/pdf/2004/BOE-A-2004-21760-consolidado.pdf>
- EMAKUNDE (2006, 36.or). *Genero ikuspuntuarekin bertako aurrekontuak*. https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_informes/eu_emakunde/adjuntos/pres_loc_enfoque_genero_eu.pdf
- Gargallo, B. eta Pérez, C. (d.g.). Sexismo y estereotipos de género en los textos escolares. *Addenda a la ponencia IV Lectura y género: leyendo la invisibilidad*. http://www.uv.es/genero/docs/public_edu/sexismo_txtos.pdf
- Kubrick, A. (d.g.). Educación feminista a niñas frases prohibidas. <https://annakubrickcontent.com/educacion-feminista/>
- Maganto, C. eta Cruz, S. (2000). La imagen corporal y los trastornos alimenticios: una cuestión de género. <https://www.sepypna.com/documentos/articulos/maganto-imagen-corporal-trastornos-alimenticios.pdf>
- Marañón, I. (2019a). Cómo ser niño o niña. I. Marañón-en, *Educación en el feminismo* (100-102. orr.).Plataforma.
- Marañón, I. (2019b). Estereotipos de género. I. Marañón-en, *Educación en el feminismo* (43-49. orr.).Plataforma.
- Martinez-Martin, I. (2016). Construcción de una pedagogía feminista para una ciudadanía transformadora y contra-hegemónica. *Foro de Educación*. <http://dx.doi.org/10.14516/fde.2016.014.020.008>
- Martinez-Martin, I. (2017). Des-patriarcalizar y Des-colonizar la Educación. Experiencias para una formación Feminista para el profesorado. <https://repositorio.uam.es/handle/10486/680344>
- Moreno, E. (2000). *La transmisión de modelos sexistas en la escuela. El Harén pedagógico*. Graò.
- Reguant, D. (2014) Explicación abreviada del patriarcado. <https://patagonialibertaria.files.wordpress.com/2014/12/sintesis-patriarcado-es.pdf>
- Subirats, M. (1994). Género y Educación. *Revista Iberoamericana de Educación*. 2021eko urtarrilaren 4ean berreskuratuta. <https://rieoei.org/historico/oeivirt/rie06a02.htm>
- Subirats, M. eta Tomé, A. (2010). *Balones fuera*. <https://octaedro.com/wp-content/uploads/2019/02/10104.pdf>
Feminista izaten saiatzen naiz baina kontziente naiz nire pentsamenduan errotuta dauden pentsamendu batzuk matxistak direla. Urteak pasa ahala, gero eta gehiago konturatzen naiz matxista edo mikromatxista diren egoerez.

2. Feminista zarela uste duzu? Zergatik?

Feminista izaten saiatzen naiz, gizartean emakumezko eta gizonezkoen arteko berdintasunaren alde bainago. Hala ere, badakit pentsamendu eta jokaera batzuk aldatu behar ditudala.

3. Ba al dakizu zer den pedagogia feminista? Azaldu.

Nire ustez, pedagogia feminista, feminismoan oinarritutako hezkuntza da. Gizarte feminista bat lortzeko pedagogia feminista beharrezkoa da ez baita berez lortuko.

4. Inoiz ikusi al duzu jarrera/jokabide matxistarik zure inguruan? Zergatik?

Mikromatxismoak ikusi ditut nire inguruan. Gizartean barneratuta dauden jokabide matxista hauek ikustea nahiko erraza dela iruditzen zait.

5. Uste duzu matxismoa eta feminismoa hezkuntzarekin lotuta daudela? Zergatik?

Bai. Eskola eta hezkuntza gizartearen parte dira eta gizarte feminista bat lortzeko eskolan landu beharreko gaia dela deritzot.

6. Uste duzu ikastetxean genero berdintasuna dagoela? Zergatik?

Orain lanean nabilen eskolan genero berdintasuna dagoela uste dut. Ez da genero bereizketarik egiten.

7. Ikastetxeko materiala (liburuak, ipuinak, jostailuak, lan koadernoak...) sexu eta genero estereotipo/roletan oinarritzen dela uste duzu? Zergatik?

Irakasle klaustroa sexu eta genero roletan oinarritzen ez den materialak bilatzen eta sortzen saiatzen dela uste dut.

Haur Hezkuntzan badakit hausnarketa sakon bat egin ondoren, geletako jostailu eta materialak aldatu zituztela genero rol hauek ekiditeko.

8. Eskolako materiala feminismoan oinarritu beharko zela uste duzu? Zergatik?

Bai. Ikasleei eredu feministak erakustea oso garrantzitsua dela uste dut. Bestela, emakumeak

gizartean eta historian zehar duen eta izan duen garrantzia kendu egiten delako.

9. Zure ikasleei eredu sexistak transmititzen dizkiezula uste duzu? Zergatik?

Aurretik aipatu bezala ni ere gai honen inguruan gero eta kontzienteagoa naiz eta gero eta gehiago ikasten ari naiz eta nire ikasleei eredu ez sexistak transmititzen saiatzen naiz.

10. Hezkidetzan edo koedukazioan oinarritutako hezkuntza eskaintzen saiatzen zara?

Zergatik?

Bai. Hezkuntza curriculumean agertzen da eta gainera nire ikasleak berdintasunean hezten saiatzen naiz.

11. Eskolan feminismoaren gaia nahikoa lantzen dela uste duzu? Zergatik?

Eskola askotan gai hau soilik martxoaren 8an jorratzen den gaia dela uste dut. Nire ustez, arlo askotan jorra daitekeen gaia da, ez bakarrik tutoretza saioan. Adibidez, gizarte zientzietan historia lantzean edo natur zientzietan zientzialariei buruz hitz egiterakoan.

12. Ikastetxeko curriculumean nahiko materia feminista dagoela uste duzu? Zergatik?

Ez. Uste dut maila bakoitzean eta lantzen den proiektu bakoitzean eredu feministak agertu beharko liritekeela uste dut.

13. Curriculum ezkutuan eredu sexistak transmititzen direla uste duzu? Zergatik?

Lehen Hezkuntzan ez dakit baina Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan, Historia arloan adibidez bai. Historiako protagonistak beti aro guztietan gizonezkoak izaten dira.

14. Gizarte matxista batean bizi garela uste duzu? Zergatik?

Gizarte matxista batean bizi garela deritzot. Ez da emakume eta gizonen arteko berdintasunik existitzen. Gaur egun, batez ere, mikromatxismoak daudela uste dut.

15. Gaur egun emakumeak arlo ezberdinetan diskriminatuta daudela uste duzu? Zergatik?

Nire inguruan ez dut diskriminazio hori ikusten baina argi daukat lantoki askotan diskriminazio hori existitzen dela.

16. Ikasleak matxismoa, eredu sexistak, estereotipoak, genero ezberdintasunak... barneratuta dituztela uste duzu? Zergatik?

Bai, gizartean barneratuta dagoelako. Adibidez, urdin eta batez ere arrosa kolorearen banaketa.

17. Familiak beraien seme-alabei, berdintasunean oinarritutako hezkuntza eskaintzen

diela uste duzu? Zergatik?

Familia askok berdintasunean hezten dituzte haien seme-alabak baina beste askok ez.

18. Haurrak gizarte mota honetan hezteak beraien hezkuntza garapenean eragiten diela uste duzu? Zergatik?

Bai. Gizarteak eta bizi dugun ingurunean eragin handia du guregan eta txikitatik eredu batzuk ikusten baditugu (iragarkietan, filmetan, aldizkarietan, tik-tok edo instagramen...) hauek barneratuko ditugu eta pentsamenduan eta jokabidean eragina izango du.

19. Ikasle emakumeei gizarte matxista honetan bizitzeak, hezkuntza arloan, eragiten

diela uste duzu? Zergatik?

Haur eta Lehen Hezkuntzan daudenean ez die eragiten. Nire ustez, gizonezkoak diren ikasleak bezala hezten dira. Dena den, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara iristean eta aurrerago desberdintasunak sortzen direla uste dut. Adibidez, unibertsitateko karrera

aukeratzeko momentuan. Ikasle emakumezko askok ez dute haien burua ingeniari bezala ikusten.

20. Feminismoa ikasleei txikitatik erakutsi behar zaien zerbait dela uste duzu?

Bai. Jaiotzen garen momentutik gure inguruan gertatzen denaz jabetzen gara modu handiago edo txikiago batean. Horregatik, feminismoa jaiotzen garen momentutik erakutsi behar dela uste dut.

21. Eskolan emakumeari nahiko garrantzi ematen zaiola uste duzu? Zergatik?

Garrantzia ematen zaiola uste dut baina proiektuetan berdintasuna bultzatzeko presentzia

gehiago izan beharko lukeela uste dut.

22. Irakasle guztiak hezkidetzan oinarritu beharko zirela uste duzu? Zergatik?

Bai. Gizartean feminismoa lortzeko etxean lantzeaz gain eskolan irakasle guztiak hezkidetzan oinarritu beharko liratekeela uste dut. Horrela izan ezean, ez ikastalde baten aurrean jarri behar.

23. Irakasleak hizkuntza ez inklusiboa erabiltzeak ikasleen hezkuntzan eragiten duela

uste duzu? Zergatik?

Ez dakit irakasleak kontziente diren hizkuntza (gaztelania) ez inklusiboak duen eraginaz gizartean ere, ez inklusiboa baita. Hala ere, gauza "sutilak" diren arren gizarte feminista lortu nahi badugu hizkuntza ere inklusiboa izan beharko litzatekeela uste dut. Gainera, ikasleez gain, irakasleak familiekin dituen harremanetan, emailak esate baterako, hizkuntza inklusiboa erabili behar duela deritzot.

24. Ikasle bat hezkuntza ez feminista batean hezteak, ondorio latzak ekarriko dizkiola

uste duzu? Zergatik?

Bai, bere etorkizunean izango dituen harremanetan (bikote edo lagun harremanetan, lantokian...) matxismoa barneratua izango baitu.

25. Pedagogia feministan oinarritutako hezkuntza eskaintzea garrantzitsua dela uste

duzu? Zergatik?

Gizarte feminista bat lortu nahi badugu irakasleak pedagogia feministan oinarritutako hezkuntzan

hezi behar ditugu. Horrela, bai emakumezkoak bai gizonezkoak eredu matxistak identifikatu eta hauek baztertzeko gai izango dira.

PEDAGOGIA FEMINISTAREN INGURUKO GALDETEGIA

Jaione Goikoetxea dut izena, Lehen Hezkuntzako gradua amaitzen ari naiz eta Pedagogia Feministaren inguruko GRAL-a egiten ari naiz. Horretarako, galdetegi hau erantzutea gustatuko litzaidake nire ikerketa aurrera eramateko.

Galdetegi honetan, galdera ezberdin batzuk planteatzen ditut, Bai/Ez eta Zergatik? Erantzun beharko duzu.

Nongoa zara? Aguraingoa Adina: 34

Generoa: Emakumea Lan urteak:

1. Matxista zarela uste duzu? Zergatik?

Ez dut nire burua matxistatzat hartzen, nahiz eta jabetzen naizen jendarte matxista batean hezi eta bizi naizela eta hainbat arau, balore...matxista barneratuak ditudala. Hausnartu eta deseraikitzen saiatzen naiz.

2. Feminista zarela uste duzu? Zergatik?

Bai! Zapalkuntza-sistematik gabeko jendarte batean bizi nahi dudalako.

3. Ba al dakizu zer den pedagogia feminista? Azaldu.

Orain bi urte edo, feminismitik hezkuntzarako egin zen proposamena etortzen zait burura: hezkidetzatik pedagogia feministara salto egitea.

Orain urte batzuk, hainbat eskoletan, feminismitik egindako proposamenei jarraituz, hezkidetzaren aldeko apustua egin zen. "Esku-hartzea sexu-genero sistemaren markoan zen. Ezinbestekoa zen curriculuma moldatzea, diskurtso pedagogikoa oso androzentrikoa eta patriarkala baitzen: liburuetako erreferenteak, esaldiak, familiaren irudikapena... Horixe izan zen lehen helburua: emakumeen bizipena txertatuko zituen diskurtsoak sortzea.

"Hezkidetzak ikaragarrizko onurak ekarri ditu emakumeentzat, eta ezinbesteko tresna izan da pairatzen ditugun hainbat diskriminazioei aurre egiteko; orain, ordea, hezkidetzaren ikuspuntu hori zabaltzea dagokigu, klase ertaineko emakume zurientzako pentsaturiko feminismoa utzi eta opresioen interseksionalitatea bere baitan hartuko duen teoria bat behar dugu.

"Hori da, hain zuzen, Pedagogia feministak proposatzen duena: inklusioa, tolerantzia eta integraziotik harago joango den tresna bat lantzea. Helburua ez da errekonozimendua bilatzea, baizik eta hausnarketa normaltasunaren ardatzetik urruntzea, arrakaletan daudenak erdigunera ekarriz."

Hezkuntza publiko ez diskriminatzaile, ez androzentriko eta ez heterosexista bat sortzea. Ez da erronka makala, horretarako hegemonia aztoratu beharko baitugu, zalantzan jarri bi gorputz daudela, bi genero daudela eta horiek lotzeko sexualitate arautu bat dagoela. Soilik horrela ekin ahal izango diogu galderak egiteko uneari, eta ez ote da hori irakasleonek eginkizuna? "

Nagore Iturrioz, <https://www.pikaramagazine.com/2019/03/hezkidetzatik-pedagogia-feministarantz/>

4. Inoiz ikusi al duzu jarrera/jokabide matxistarik zure inguruan? Zergatik?

Bai noski! Bizi garen jendartea matxista delako.

5. Uste duzu matxismoa eta feminismoa hezkuntzarekin lotuta daudela? Zergatik?

Bai.

6. Uste duzu ikastetxean genero berdintasuna dagoela? Zergatik?

Jendartearen isla da eskola.

7. Ikastetxeko materiala (liburuak, ipuinak, jostailuak, lan koadernoak...) sexu eta genero estereotipo/roletan oinarritzen dela uste duzu? Zergatik?

Merkatuan dauden gauza batzuk bai eta beste batzuk ez. Irakaslearen lana izaten da aukeraketa hori egitea.

8. Eskolako materiala feminismoan oinarritu beharko zela uste duzu? Zergatik?

Bai, noski. Hezten ari garelako.

9. Zure ikasleei eredu sexistak transmititzen dizkiezula uste duzu? Zergatik?

Saiatzen naiz ezetz!

10. Hezkidetzan edo koedukazioan oinarritutako hezkuntza eskaintzen saiatzen zara? Zergatik?

Gaur egun esaten da iada hezkidetzatik haratagoko salto bat eman behar dugula, hezkidetzatik pedagogia feministarantz joan behar garela. Saiatzen naiz.

<https://www.pikaramagazine.com/2019/03/hezkidetzatik-pedagogia-feministarantz/>

11. Eskolan feminismoaren gaia nahikoa lantzen dela uste duzu? Zergatik?

Saiatzen da ahalik eta hoberen egiten, nahiz eta beti dagoen gehiago eta hobe egiteko aukera. Oraingoz orokorrean eskoletan ere badugu lana egiteke, nahiz eta bagoazen apurka apurka aurreratzen.

12. Ikastetxeko curriculumean nahiko materia feminista dagoela uste duzu? Zergatik?

13. Curriculum ezkutuan eredu sexistak transmititzen direla uste duzu? Zergatik?

14. Gizarte matxista batean bizi garela uste duzu? Zergatik?

Bai.

15. Gaur egun emakumeak arlo ezberdinetan diskriminatuta daudela uste duzu? Zergatik?

Noski, jendarte matxista batean bizi garelako.

16. Ikasleak matxismoa, eredu sexistak, estereotipoak, genero ezberdintasunak... barneratuta dituztela uste duzu? Zergatik?

Bai, gure jendarteak matxista izaten jarraitzen duelako! Nahiz eta nabari den poliki poliki feminismotik egiten den lanak ere eragiten duela eta bestelako ereduak ere azaleratzen ari direla.

17. Familiak beraien seme-alabei, berdintasunean oinarritutako hezkuntza eskaintzen diela uste duzu? Zergatik?

Denetarik dago baina orokorrean uste dut oraindik asko dugula egiteko. Jendartearen isla da eskola. Nahiz eta nabari den poliki-poliki feminismotik egiten den lanak ere eragiten duela eta bestelako ereduak ere azaleratzen ari direla.

18. Haurrak gizarte mota honetan hezteak beraien hezkuntza garapenean eragiten diela uste duzu? Zergatik?

Bai, hezten ari direlako eta baloreak, jarrerak... ikusi eta barneratu, erreproduzitzen ari direlako.

19. Ikasle emakumeei gizarte matxista honetan bizitzeak, hezkuntza arloan, eragiten diela uste duzu? Zergatik?

Bai hezkuntza arloan bai bizitzako beste arlotan ere.

20. Feminismoa ikasleei txikitatik erakutsi behar zaien zerbait dela uste duzu?

Feminismoa erakutsi baino gehiago feminismoan hezteko aukera eman beharko genielako esango nuke nik.

21. Eskolan emakumeari nahiko garrantzi ematen zaiola uste duzu? Zergatik?

Ez dut galdera ondo ulertzen, ..

22. Irakasle guztiak hezkidetzan oinarritu beharko zirela uste duzu? Zergatik?

Aukeratzetik badugu, lehenagoko galderari jarraituz, pedagogia feministan hobeto.

23. Irakasleak hizkuntza ez inklusiboa erabiltzeak ikasleen hezkuntzan eragiten duela uste duzu? Zergatik?

Bai.

24. Ikasle bat hezkuntza ez feminista batean hezteak, ondorio latzak ekarriko dizkiola uste duzu? Zergatik?

Bai. Matxismotik elikatzen jarraituko duelako, horrek dakarrenarekin.

25. Pedagogia feministan oinarritutako hezkuntza eskaintzea garrantzitsua dela uste duzu? Zergatik?

Bai, oso garrantzitsua. Besteak beste identitate desberdinentzat tokia egingo duen curriculum bat ahalbidetu dezakeelako, hezkuntza publiko ez diskriminatzaile, ez androzentriko eta ez heterosexista bat ahalbidetuz. Hamaika arrazoiengatik oinarritu beharko genuke hezkuntza pedagogia feministan!

PEDAGOGIA FEMINISTAREN INGURUKO GALDETEGIA

Jaione Goikoetxea dit izena, Lehen Hezkuntzako gradua amaitzen ari naiz eta Pedagogia Feministaren inguruko GRAL-sa egiten ari naiz. Horretarako, galdetegi hau erantzutea gustatuko litzaideke nire ikerketa sarrera eramateko.

Galdetegi honetan, galdera ezberdin batzuk planteatzen ditut, Bai/Ex eta Zergatik? Erantzun beharko duzu.

Nongoa zara? Zabalbikoa

Adina: 39

Generoa: Emakumea

Lan urteak: 14

1. Matxista zarela uste duzu? Zergatik?

Ez. Berdintasuna bultzatzen saiatzen naizela eta. Hada ere, gizarte matxista batean hasia izanik, inkonjuztuzki jokatu matxistak izan ditzakeela uste dut, barmatuta duden jertauten moduan.

2. Feminista zarela uste duzu? Zergatik?

Bai. Berdintasunerako bide honetan, emakumeak urratu ditupen eskubideak defendatzen ditudalako.

3. Ba al dakizu zer den pedagogia feminista? Azaldu.

Ez, zehazki ez. Berdintasunean oinarritutako Hezkuntza izan daitekela uste dut, sexu aldaketan, errato, pentsalera... Irakaste autoritarioa roketu gabe, baina ez dakit ziru zer den.

4. Inoiz ikusi al duzu jarrera/jokabide matxistarik zure inguruan? Zergatik?

Zuzenrik bai baina gehiago, asko barmatuta ditupulako. Baina aita baten ehotte "eskolako karkak nire emaztearen karkak dira" entzutea oso barmatuta epin zitzaidan.

5. Uste duzu matxismoa eta feminismoa hezkuntzarekin lotuta daudela? Zergatik?

Ez dakit. Hezkuntzan lan epiten dupunak "kasteentat emeferente eta eredu garen neunion barmatuta esanp nute. Gure jokatu, hitak, adierazten dupuna... zuzenaren iristen da barmatuta eta lotura barmatuta esanp nute.

6. Uste duzu ikastetxean genero berdintasuna dagoela? Zergatik?

Nire uste dut ikastetxe bakoitza mundu eta errealitate ezberdin bat dela eta denetik dagoela. Egia esan, azken urte hauetan aldeaketa handia eman dela esan da nuke eta bai, badagoela (gehienetan) berdintasuna. Jostailu berdineko, liburua eta materiala... dena azeritua da.

7. Ikastetxeko materiala (liburuak, ipuinak, jostailuak, lan koadernoak...) sexu eta genero estereotipo/roletan oinarritzen dela uste duzu? Zergatik?

Orokorrean ezela esango nuke. Gaur egun (gehienetan behintzat) oso ondo bepizaldu da erosten den materiala, jostailu, ipuinak etabar eta hain jarduera anitztasun hori kontutan izanda eta (antzeza erabilgarria den materiala erosten dela esango nuke.

8. Eskolako materiala feminismoan oinarritu beharko zela uste duzu? Zergatik?

Feminismo hitzaren berberetasuna esan nahi baduten bai. Inor ez da inoren gainetik egon behar (edozein arlotan) eta autera hori erango duen materiala. Emakumearen irudia gehiago errepresentatzen duten liburuak etabar egon beharko lirateke (emakume zintak...)

9. Zure ikasleek eredu sexistak transmititzen diezula uste duzu? Zergatik?

Ezetzkoan nago. Azalpenak eta adibideak oso onak eta ezberdinak izaten saiatzen naiz. Arlo guztiari begira: familia eredu ezberdinak; emakumearen rola etxean, gizartean...; kirol arloko adibideak... etabar luze bat.

10. Hezikidetasun edo koedukazioan oinarritutako bezkuntza eskaintzen saiatzen zara? Zergatik?

Bai. Guretik esan bezala, egunerokotasunean erabiltzen ditugun adibide eta azalpenak, elkarrizketa sortzera bideratuak normalean, oso onak eta ezberdinak dira. Gizarteak emakume eta gizonei egokitu behar du eta jokabide horietatik aparte (irriepide sexistei jarraitzen diotenak) hezken saiatzen saiatuko.

11. Eskolan feminismoaren gaitz nabikoa lantzen dela uste duzu? Zergatik?

Sekula ez da nabikoa, baina arlo asko daude, bai asko... hala ere, epuneroztatuz eta naturaltasunet landu behar dela uste dut, ez epun konkretu batean bakarrik.

12. Ikastetxe curriculumean nabiko materia feminista dagoela uste duzu? Zergatik?

Ba ez dakit zer osan... Planak epiten dira lantzeko formatuentzat... baina materia... zailentzat datur.

13. Curriculum ezkutuan eredu sexistak transmititzen direla uste duzu? Zergatik?

Ez dakit, ziurtenik bai /oso bameratuta ditugulako eredu horietatik eta askotan kontrolatu gabe erabiltzen ditugulako, baina ez dakit.

14. Gizarte marxista batean bizi garela uste duzu? Zergatik?

Aldatzen ari da baina baietz ban nago. Berdintasun nerako bidean pauso asko emateko falta da oraindik. "Gizonen gizarte" bat dela esango nuke oraindik. Lan arloa, aginte postuak, soldadak, baldintzak.

15. Gaur egun emakumeak arlo ezberdinetan diskriminatuta daudela uste duzu? Zergatik?

Berdintasuna eta aukera berdintze ez ditugunean bai. Lanpostuetan adibidez sexuaren arabera aukeraketa epiten bada (ama izateko asmoagatik, familia izateagatik...) diskriminazioa da.

16. Ikasleak matxismoa, eredu sexistak, estereotipok, genero ezberdintasunak... barnetatuta dituztela uste duzu? Zergatik?

Astokan bai baina hori ere aldatzen ari dela uste dut. Gelako elkarrizketetan nabaritzen da, jokaberetan, hitz eraketan moduan etabar.

17. Familiak beraien seme alabei, berdintasunean oinarritutako hezkuntza eskaintzen diela uste duzu? Zergatik?

Hori pentsatu nahiko nuke baina oso familia ezberdinetan daude eta errealitatean ikusten duguna eta da horrela. Denetik dago.

18. Haurrak gizarte mota honetan hezteak beraien hezkuntza garapenean eragiten diela uste duzu? Zergatik?

Baietz esango nuke. Etorkizuneko gizartearen erakiletan ari gara eta pertsonak eragiten duela uste dut.

19. Ikasle emakumeei gizarte matxista honetan bizitzeko, hezkuntza arloan, eragiten diela uste duzu? Zergatik?

Bai, ikasketen arloan esaterako. Bakoitzaren bizipena zehar eta nolabait da, zer ikasi, zertan lan egin... denon eragineko da.

20. Feminismoa ikasleei txikitatik erakutsi behar zaien zerbait dela uste duzu?

Bai, naturaltasunez barnetatuta behar den zerbait.

21. Eskolan emakumezari nahiko garrantzi ematen zaiola uste duzu? Zergatik?

Berri eta gehiago. Egunerokotasunean, jolelan, etxebailetan... eta egun zaindaketan ere bai (2020ko 25, martxoak 8, Emakume Identitatearen Eguna...) bai gelan, eskola mailan eta kalera begira.

22. Irakasle guztiak bezaladetan oinarritu beharko zirela uste duzu? Zergatik?

Bai. Oso garrantzitsua iruditzen zait honi. Hobeak dira Plana ere badago ia ikasleek guretzat. Guretzat erabiltzen ari gara eta honi beharrezko ikuslan dute.

23. Irakasleak hizkuntza ez inklusiboa erabiltzeak ikasleen hizkuntzan eragiten duela uste duzu? Zergatik?

Bai, gu guretzat bereziki eredu eta erreferente. Bakoitza bere bizipenak ditu eta putzile errespetatu eta eragularazi behar ditugu.

24. Ikasle bat hizkuntza ez feminista batean bezalako, ondorio latzak ekarriko dizkiola uste duzu? Zergatik?

Ondorio latzak et datur baina berarentzat oso kaltegarria izango dela zurr. Aldatzen ari den gitarra batela zati den heinean, bertora aldatu eta hobearen egokitzea epotea beharrezkoa dela uste dute.

25. Pedagogia feministan oinarritutako hizkuntza eskaintzen garrantzitsua dela uste duzu? Zergatik?

Bai. Rolak oso aldatu dira azken urteotan eta berdintasuna ezinbestekoa dela uste dute arlo putzitan. Inar et dago inar gainera eta ikasleei bereziki bidea egiten laguntzeko gaur eta gero. Etxebaitak, parte hartuz, inar emanet... denok aukera berdinetan.

PEDAGOGIA FEMINISTAREN INGURUKO GALDETEGIA

Jaione Goikoetxea dut izena, Lehen Hezkuntzako gradua amaitzen ari naiz eta Pedagogia Feministaren inguruko GRAL-a egiten ari naiz. Horretarako, galdetegi hau erantzutea gustatuko litzaidake nire ikerketa aurrera eramateko.

Galdetegi honetan, galdera ezberdin batzuk planteatzen ditut, Bai/Ez eta Zergatik? Erantzun

beharko duzu.

Nongoa zara? Gasteiz Adina:42

Generoa: Gizonezkoa Lan urteak: 18?

1. Matxista zarela uste duzu? Zergatik?

Ez dut nire burua matxista hartzen, baina egia da txikitatik jasotako informazioa nahiko bideratuta egon dela sexuen arteko banaketa horretara eta batzuetan inkontzienteki matxista kutsu bat nabaritzen dudala nire baitan.

2. Feminista zarela uste duzu? Zergatik?

Baietz esan nahiko nuke, baina aurrekoan bezalaxe ez dakit lortzen ari naizen. Nire bikotearekin dudan harremana feminista izatea gustatuko litzaidake, baina ez dakit lortzen ari naizen. Umearekin berak lan gehiago egiten du eta etxeko zereginetan pisu gehiago dauka. Hori hobetu behar dut.

3. Ba al dakizu zer den pedagogia feminista? Azaldu.

Imajinatzen dudanez bi sexuen berdintasunean oinarritutako pedagogia izango da. Ikasleei berdintasun hori transmititzea egunerokotasunean (hiztegia zaindu, gelako gaietan bi sexual goraipatzea...)

4. Inoiz ikusi al duzu jarrera/jokabide matxistarik zure inguruan? Zergatik?

Bai, tamalez askotan ikusi ditut jokabide horiek. Batzuetan ez dira oso larriak izan (hitz egiteko modua, konnotazioak....) baina beste batzuetan matxismo gogorra ikusi dut. Aitak amari mespretxuak, aitak seme/alabari hitz egiteko moduak, bikote batean mutilaren jarrera indarra gehiegi erabiliz, neska batzuen izaera sumisoa...

5. Uste duzu matxismoa eta feminismoa hezkuntzarekin lotuta daudela? Zergatik?

Bai, gizartean dagoen kutsu matxista hori kentzen joan behar gara eta eskolatik asko egin daiteke hori lortzeko. Hala ere, etxetik jasotzen duten ereduak ere oso garrantzitsuak da, beraz ez dago dena gure esku.

6. Uste duzu ikastetxean genero berdintasuna dagoela? Zergatik?

Bai, hemen generoak ez dauka garrantzirik ikasleko eta irakaslekoaren aldetik. Egunerokotasunean bi sexuak berdintzen ditugu eta ez dugu bereizketarik egiten... edo horretan saiatzen gara.

7. Ikastetxeko materiala (liburuak, ipuinak, jostailuak, lan koadernoak...) sexu eta genero estereotipo/roletan oinarritzen dela uste duzu? Zergatik?

Eskoletan materiala aldatuz doa eta estereotipoak baztertzen bagoaz. Hala ere, batzuetan erabiltzen dugun materiala defasatua egon daiteke eta antzinako hutsunetan erori (ipuin sexistak adibidez).

8. Eskolako materiala feminismoan oinarritu beharko zela uste duzu? Zergatik?

Bai, hala uste dut bi sexuen berdintasuna landu behar delako.

9. Zure ikasleei eredu sexistak transmititzen dizkiezula uste duzu? Zergatik?

Batzuetan inkontzienteki egin izango dut, baina saihesten saiatzen naiz. Hala ere beraien ulertu ahal izateko adibideak jartzen ditudanean askotan erortzen naiz akatsean (Messi, Cristiano Ronaldo...).

10. Hezkidetzan edo koedukazioan oinarritutako hezkuntza eskaintzen saiatzen zara?

Zergatik?

Bai noski. Sexu bereizketarik ez dut egiten (horrela uste dut behintzat) eta bien garrantzia gorai patzen saiatzen naiz.

11. Eskolan feminismoaren gaia nahikoa lantzen dela uste duzu? Zergatik?

Bai. Azken urte hauetan pil-pilean dagoen gaia da eta askotan ateratzen da gaia klasean. Gainera, martxoaren 8-an eta azaroaren 25ean ekintza bereziak antolatzen ditugu ikasleek errealitatea ikus dezaten.

12. Ikastetxeko curriculumean nahiko materia feminista dagoela uste duzu? Zergatik?

Baietz esango nuke. Beti txertatu daiteke materia gehiago baina nahikotxo lantzen dugula uste dut.

13. Curriculum ezkutuan eredu sexistak transmititzen direla uste duzu? Zergatik?

Ez dakit hori erantzuten.

14. Gizarte matxista batean bizi garela uste duzu? Zergatik?

Bai. Gauza asko aldatzen doaz, baina oraindik beste hamaika gauza daude aldatzeko: umeen

zainketa, etxeko lanak, emakumeak dituen oztopoak,...

15. Gaur egun emakumeak arlo ezberdinetan diskriminatuta daudela uste duzu? Zergatik?

Zergatik?

Ez nuke diskriminatu hitza erabiliko, baina egia da emakumeek aukera gutxiago dituztela gizartearen hainbat alderdietan. Bikote batek ume bat duenean errazagoa da emakumeak lana uztea ume hori zaintzeko, adibidez.

16. Ikasleek matxismoa, eredu sexistak, estereotipoak, genero ezberdintasunak... barneratuta dituztela uste duzu? Zergatik?

Tamalez hala dela uste dut. Haien begi eta belarrietara heltzen den informazioa oso estereotipatua dago eta barneratzen joaten dira urteetan zehar. Etxean amak garbitzen badu arropa emakumeen gauza bat dela ikasten dute, telebistak gizonezkoen futbola bakarrik ikusten badute, hori horrela dela ikasten dute, pelikuletan heroia mutila bada hori barneratzen dute...

17. Familiak beraien seme-alabei, berdintasunean oinarritutako hezkuntza eskaintzen

diela uste duzu? Zergatik?

Saiatzen direla esango nuke (eta ziur batzuk lortzen dutela), baina gehiengoak ez du lortzen.

Gizarteak ez die laguntzen eta gizartearen kontra borrokatzea oso zaila da.

18. Haurrak gizarte mota honetan hezteak beraien hezkuntza garapenean eragiten diela uste duzu? Zergatik?

Nerabezaroan eragina handia dauka eta gatazka nahikotxo bizi izan ditut (nire neska zarenez

musu eman behar didazu derrigorrez, nire mutilak mobila kontrolatzen dit maiteminduta dagoelako eta zaindu nahi naudelako...), baina heldutasuna lortzen dutenean arazoa ulertzen dute eta beraien ikuspegi eta ekintzak aldatzen doaz.

19. Ikasle emakumeei gizarte matxista honetan bizitzeak, hezkuntza arloan, eragiten

diela uste duzu? Zergatik?

Ezin dut argi esan. Zure ingurua matxista baldin bada, ingurura moldatzen saiatzen zara (kontuz ibili etxera bueltatzean, jartzen duzun arropa pentsatu...) beraz eragina duela esango nuke.

20. Feminismoa ikasleei txikitatik erakutsi behar zaien zerbait dela uste duzu?

Bai, argi eta garbi.

21. Eskolan emakumeari nahiko garrantzi ematen zaiola uste duzu? Zergatik?

Bai, horretan dihardugu.

22. Irakasle guztiak hezkidetzan oinarritu beharko zirela uste duzu? Zergatik?

Bai noski. Saiatu arren, ziurrenik ez dugu dena ondo egiten eta noizean behin birziklatzea oso ondo datorkigu.

23. Irakasleak hizkuntza ez inklusiboa erabiltzeak ikasleen hezkuntzan eragiten duela

uste duzu? Zergatik?

Irakasle batek eragina dauka gehienetan bere ikasleengan, beraz hizkuntza ez inklusiboa erabiltzen badu, eragina izango du, bai.

24. Ikasle bat hezkuntza ez feminista batean hezteak, ondorio latzak ekarriko dizkiola

uste duzu? Zergatik?

Ezin dut horrelako baieztapen gogor bat egin, baina arazo gehiago izan ahal dituela bizitzan bai.

25. Pedagogia feministan oinarritutako hezkuntza eskaintzea garrantzitsua dela uste

duzu? Zergatik?

Bai, lehen esan bezala gure ikasleak ahal dugun modurik hoberenean hezi behar ditugu eta horretarako bi sexuen arteko berdintasuna bultzatu behar dugu.

PEDAGOGIA FEMINISTAREN INGURUKO GALDETEGIA

Jaione Goikoetxea dut izena, Lehen Hezkuntzako gradua amaitzen ari naiz eta Pedagogia Feministaren inguruko GRAL-a egiten ari naiz. Horretarako, galdetegi hau erantzutea gustatuko litzaidake nire ikerketa aurrera eramateko.

Galdetegi honetan, galdera ezberdin batzuk planteatzen ditut, Bai/Ez eta Zergatik? Erantzun beharko duzu.

Nongoa zara? Gasteizkoa Adina: 43

Generoa: Gizonezkoa Lan urteak: 21

1. Matxista zarela uste duzu? Zergatik?

Ez. Jarrera matxistak onartu, bultzatu edota errespetatzen ez ditudalako.

2. Feminista zarela uste duzu? Zergatik?

Bai. Pertsonen arteko berdintasuna eta eskubideen errespetua bultzatzen saiatzen naizelako.

3. Ba al dakizu zer den pedagogia feminista? Azaldu.

Nire ustez sexuen arteko berdintasunaren eraikuntza sustatu eta dauden desberdintasunak geldiaraztea eta saihestea bilatzen duen pedagogia da.

4. Inoiz ikusi al duzu jarrera/jokabide matxistarik zure inguruan? Zergatik?

Bai, zalantzarik gabe. Telebistan, kalean, eskoletan... txantxak, txistekak, komentarioak etab. entzuten direlako maiz.

5. Uste duzu matxismoa eta feminismoa hezkuntzarekin lotuta daudela? Zergatik?

Nire ustez, erabat lotuta daude. Eskolak, familiarekin batera, hezkuntzaren oinarriko bi zutabeak izan behar dute, eta feminismoa sustatu behar dute, esparru eta alderdi guztietan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko lan-tresna gisa.

6. Uste duzu ikastetxean genero berdintasuna dagoela? Zergatik?

Askotan modu inkontzientean bada ere, uste dut ikasleen eta irakasleen artean genero-desberdintasunak markatzen dituzten egoerak gertatzen direla.

7. Ikastetxeko materiala (liburuak, ipuinak, jostailuak, lan koadernoak...) sexu eta genero estereotipo/roletan oinarritzen dela uste duzu? Zergatik?

Nire ustez, ikastetxeko material gehienek genero-berdintasuna sustatzen dute, nahiz eta egia den

hezkuntza-komunitateko estamentu desberdinok material horiek aztertzeari garrantzi berezia eman behar diogula.

8. Eskolako materiala feminismoan oinarritu beharko zela uste duzu? Zergatik?

Bai, berdintasuna eraiki eta desberdintasunak geldiarazteko ezinbesteko baita.

9. Zure ikasleei eredu sexistak transmititzen dizkiezula uste duzu? Zergatik?

Gutxienez kontzienteki ez dut egiten. Are gehiago, rol sexista tradizionalak hausten dituzten ereduak ematen saiatzen naiz, ikasleek beren errealitate hurbilenari aplikatutako pedagogia feminista uler dezaten.

10. Hezkidetzan edo koedukazioan oinarritutako hezkuntza eskaintzen saiatzen zara?

Zergatik?

Nire ustez, bai, genero guztietan rol-berdintasuna transmititzen saiatzen naiz eta.

11. Eskolan feminismoaren gaia nahikoa lantzen dela uste duzu? Zergatik?

Uste dut sarritan egiten dela lan, baina pedagogia feminista modu sistematikoan eta antolatuan

ikasgelan txertatu beharko litzatekeela uste dut, alderdi guztiak modu kontsentsuatuan landu ahal

izateko.

12. Ikastetxeko curriculumean nahiko materia feminista dagoela uste duzu?

Zergatik?

Badaude material ezberdinak, baina ez dakit nahikoa den, ezetz esango nuke. Lehen aipatu

dudan bezala, pedagogia feminista modu sistematikoan eta antolatuan ikasgelan txertatu beharko litzatekeela uste dut.

13. Curriculum ezkutuan eredu sexistak transmititzen direla uste duzu? Zergatik?

Nire ustez, irakasle bakoitzaren araberrako kontua da, baina, oro har, eredu sexistak transmititzen

direla uste dut, askotan inkontzienteki eta denboran zehar ezarritako baieztapenetan oinarrituta.

14. Gizarte matxista batean bizi garela uste duzu? Zergatik?

Bai, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzen ez duten jarrera, pertsona, jarduera eta abar asko daudelako. Beraz, egungo gizartean berdintasuna agerikoa ez dela abiapuntutzat hartuta, gizarte matxista batean bizi garela esango nuke.

15. Gaur egun emakumeak arlo ezberdinetan diskriminatuta daudela uste duzu? Zergatik?

Esparru askotan bai. Adibidez, lan-eremuan, sartzeko zailtasunaren eta soldata-arrakalaren arteko aldeak nabarmenduko nituzke. Arlo sozialean, nire ustez, azpimarragarria da oraindik ere emakumeari buruz dagoen kontzeptua, etxearekin eta familiarekin lotutako pertsona den aldetik.

16. Ikasleek matxismoa, eredu sexistak, estereotipoak, genero ezberdintasunak... barneratuta dituztela uste duzu? Zergatik?

Askotan eta esparru ezberdinetan, bai, ikasgelan horrelako ereduak, iruzkinak eta abar ikusten

jarraitzen dugu eta. Arazoaren larritasuna zera da nire ustez: askotan inkontzienteki egiten dira,

eta horrek gizartean onartuta eta barneratuta daudela esan nahi du, komunikabideek erru handia

izanik.

17. Familiak beraien seme-alabei, berdintasunean oinarritutako hezkuntza eskaintzen

diela uste duzu? Zergatik?

Familiaren arabera kontua dela uste dut. Familia batzuetan ez da horren hausnarketa egiten, beste batzuetan, berriz, bai. Dena den, zaila egiten zaie askotan, eredu sozialak matxistak eta oso

markatuak direlako, nire ustez.

18. Haurrak gizarte mota honetan hezteak beraien hezkuntza garapenean eragiten diela uste duzu? Zergatik?

Zalantzarik gabe. Gizarte matxista batek dauden estereotipoak eta pertsonen arteko desberdintasunak iraunarazten jarraituko duelako.

19. Ikasle emakumeei gizarte matxista honetan bizitzeak, hezkuntza arloan, eragiten

diela uste duzu? Zergatik?

Bai, arrazoa berdina da. Gizartearen estereotipoak ezabatzen ez baditugu, pertsonen arteko

desoreka egongo da beti.

20. Feminismoa ikasleei txikitatik erakutsi behar zaien zerbait dela uste duzu?

Bai, argi eta garbi. Pertsonen arteko berdintasuna lortu nahi badugu, pedagogia feministak oso leku garrantzitsua izan behar du ikasgeletan eta gizartean.

21. Eskolan emakumeari nahiko garrantzi ematen zaiola uste duzu? Zergatik?

Nire ustez, irakaskuntzaren eremu formalean emakumeen presentzia oso txikia da, kontuan hartuta esparru guztietan (zientzian, gizartean, pedagogian) emakume asko egon direla, eta horien garrantzia nabarmendu eta landu beharko litzatekeela ikasgeletan. Beraz, ezetz uste dut, ez zaie behar besteko garrantzirik ematen.

22. Irakasle guztiak hezkidetzan oinarritu beharko zirela uste duzu? Zergatik?

Bai, horixe baita aniztasunarekiko eta pertsona bakoitzaren aukera-askatasunarekiko errespetua

sustatzeko bide bakarra.

23. Irakasleak hizkuntza ez inklusiboa erabiltzeak ikasleen hezkuntzan eragiten duela

uste duzu? Zergatik?

Lehen esandakoaren harira, hezkuntza inklusiboa funtsezkoa dela uste dut, ikasleek errespetatu

ahal izateko ezagutu behar dituzten ereduak, bizi-aukerak eta abar barne hartzen baititu. Beraz, uste dut baietz, hezkuntza inklusiboa ez erabiltzeak ondorio negatibo handiak dituela ikasleengan.

24. Ikasle bat hezkuntza ez feminista batean hezteak, ondorio latzak ekarriko dizkiola

uste duzu? Zergatik?

Zalantzarik gabe. Nire ustez, hezkuntza ez-feministak ikasleei beren bizitza indibiduala eta

soziala garatzeko funtsezko gaitasun guztiak eskuratzea eragotzi egiten die. Ere sozial

horretan, bereziki, pertsonen arteko berdintasuna ez aitortzeak eta errespetatzeak ondorio larriak

ekar diezazkioke gizarte horri.

25. Pedagogia feministan oinarritutako hezkuntza eskaintzea garrantzitsua dela uste

duzu? Zergatik?

Garrantzitsua ez ezik, funtsezkoa ere bada. Gure esku dago, irakasle garen aldetik, hezkuntza feminista hori zertan datzan erabakitzeko eta modu sistematizatuan ikasgelara eramateko ahalegin handia egiteko gakoa.

PEDAGOGIA FEMINISTAREN INGURUKO GALDETEGIA

Jaione Goikoetxea dut izena, Lehen Hezkuntzako gradua amaitzen ari naiz eta Pedagogia Feministaren inguruko GRAL-a egiten ari naiz. Horretarako, galdetegi hau erantzutea gustatuko

litzaidake nire ikerketa aurrera eramateko.

Galdetegi honetan, galdera ezberdin batzuk planteatzen ditut, Bai/Ez eta Zergatik? Erantzun

beharko duzu.

Nongoa zara? Adina: 38

Generoa: mutila Lan urteak: 13

1. Matxista zarela uste duzu? Zergatik?

Ba ez dakit matxista naizen. Ez litzaidake gustatuko edo matxista naizela pentsatzeak ez dit atseginik sortzen. Hala ere, seguru nago, matxismotik eratorritako balore edo zantzuak barneratuak izango ditudala nire nortasunean.

2. Feminista zarela uste duzu? Zergatik?

Izan nahiko nuke. Horretarako, uste dut, autoebaluazio, azterketa eta barnerako begirada

sakonagoa egin beharko nukeela.

Ez naiz feminista naizela esatera ausartzen baina bai, feminismoaren bidean, zenbait hausnarketa egin ditudala eta kontzienteki jarduten dudanean saiatzen naizela begirada feminismorantz bideratzen (ekintzetan, hausnarketetan,...).

3. Ba al dakizu zer den pedagogia feminista? Azaldu.

Ba ez. Baina esango nuke, feminismoak bere baitan biltzen duenaren inguruko erakuspena, mezuak eta baloreak zabaltzea, konpartitzea, irakastea, eta zabaltzea, jendarteratzea besteek barneratzen joateko.

4. Inoiz ikusi al duzu jarrera/jokabide matxistarik zure inguruan? Zergatik?

Bai noski: emakumeenganako mespretxuak, emakumeak isilaraztea elkarriketetan, emakumeen iritziak gutxiatea, gizonezkoen ekimena eta iritziak lehenestea...

5. Uste duzu matxismoa eta feminismoa hezkuntzarekin lotuta daudela? Zergatik?

Erabat. Heziketa, pedagogia, garena, zer, eta nola izan nahi dugun horretan datza. Beraz, matxista edo feminista, duzun begirada, transmititzen duzunarekin heziko duzu.

6. Uste duzu ikastetxean genero berdintasuna dagoela? Zergatik?

Ez dago. Nahi ala ez, sistema bera, genero ikuspegia, dena dago patriarkatuaren arabera antolatua. Nor arduratzen da bestela ikastetxean lan konkretu batzuetaz? Nor lehenesten da ardura konkretu batzuk banatzerakoan....

7. Ikastetxeko materiala (liburuak, ipuinak, jostailuak, lan koadernoak...) sexu eta genero estereotipo/roletan oinarritzen dela uste duzu? Zergatik?

Oinarritu ez dakit. Badira material batzuk, genero eta esterotipoak erreproduzitzen dituztenak. Adibidez, Haur Hezkuntzako karta jolas batean, familiak osatzerakoan, generoa rol konkretu batzuekin irudikatzen du. Esan beharrik ez dago nor dagoen josten, nor sukaldatzen etab... Testuliburuekin berdina gerta daiteke. Kontua da, guk zer hautu egiten dugun.

8. Eskolako materiala feminismoan oinarritu beharko zela uste duzu? Zergatik?

Dudarik gabe. Jendarte justu eta osasuntsuago batengatik.

9. Zure ikasleei eredu sexistak transmititzen dizkiezula uste duzu? Zergatik?

Nahiago nuke ezetz erantzun, baina baliteke baietz. Zergatia bagaje kulturalari egotziko nioke. Nahiz eta nahi ez, jaso duguna eraldatu eta iraultzea... zaila da.

10. Hezkidetzan edo koedukazioan oinarritutako hezkuntza eskaintzen saiatzen zara?

Zergatik?

Bai. Duda barik. Justizia sozialagatik, aukera berdintasunagatik, inor ez delako inor baino...

Balore etiko eta profesionalengandik.

11. Eskolan feminismoaren gaia nahikoa lantzen dela uste duzu? Zergatik?

Esangon nuke baietz. Hala ere, horrek ez du esan nahi nahikoa denik. Uste dut, gaia oso estrukturala, sakona dela eta horregatik gehiago egin/sakondu behar litzateke.

12. Ikastetxeko curriculumean nahiko materia feminista dagoela uste duzu?

Zergatik?

Nahikoa ez da inoiz. Beti mantendu behar litzateke arreta.

13. Curriculum ezkutuan eredu sexistak transmititzen direla uste duzu? Zergatik?

Bai. Aurrez esan bezala uste dut, bagaje kulturalak eragin nabarmena duela, modu inplizituan.

14. Gizarte matxista batean bizi garela uste duzu? Zergatik?

Bai, dudarik gabe. Aztertzea, behatzea baino ez dago, gure familiak (gutako bakoitzarenak) eta familiakideek ze eredu osatu duten, norik zer ardura izan duen, norik zer paper jokatu duen...

15. Gaur egun emakumeak arlo ezberdinetan diskriminatuta daudela uste duzu? Zergatik?

Bai. Ez baitute aukera berdina. Soldatagatik, lan kontratazio baldintzengandik....

16. Ikasleek matxismoa, eredu sexistak, estereotipoak, genero ezberdintasunak... barneratuta dituztela uste duzu? Zergatik?

Bai. Aurretik esan bezala, estrukturala delako, kultur bagajea...

17. Familiak beraien seme-alabei, berdintasunean oinarritutako hezkuntza eskaintzen diela uste duzu? Zergatik?

Ez. Beste eredu batzuk jaso ditugulako urteetan eta berdin, berdintasuna eskaintzea oso zaila

delako ez baduzu hausnarketa oso sakon bat egin.

18. Haurrak gizarte mota honetan hezteak beraien hezkuntza garapenean eragiten diela uste duzu? Zergatik?

19. Ikasle emakumeei gizarte matxista honetan bizitzeak, hezkuntza arloan, eragiten

diela uste duzu? Zergatik?

Bai. Noski. Haientzako eredu, eta aukera, helmuga erreferenterik ezean, haien ahalduntzea mugatzen delako.

20. Feminismoa ikasleei txikitatik erakutsi behar zaien zerbait dela uste duzu?

Irakatsi baino bizi.

21. Eskolan emakumeari nahiko garrantzi ematen zaiola uste duzu? Zergatik?

Emakumeak presentzia handia du eskolan. Baina kontua da, zein garrantzi duen emakumeak paper ezberdinak banatzean.

22. Irakasle guztiak hezkidetzan oinarritu beharko zirela uste duzu? Zergatik?

Noski. Ez baitago besterik, jendarte osasuntsuago bat nahi baldin badugu.

23. Irakasleak hizkuntza ez inklusiboa erabiltzeak ikasleen hezkuntzan eragiten duela

uste duzu? Zergatik?

Bai noski. Hitz batek pisu eta balio handia du. Dena esan duzu hitzekin, transmisioa da.

24. Ikasle bat hezkuntza ez feminista batean hezteak, ondorio latzak ekarriko dizkiola

uste duzu? Zergatik?

Ondorioak ez dakit. Dakidana da, perfil matxista erreproduzituko dela berriz. Jendarte hierarkizatu bat, botere-harremanetan oinarritua...

25. Pedagogia feministan oinarritutako hezkuntza eskaintzea garrantzitsua dela uste

duzu? Zergatik?

Dudarik gabe. Feminismotik eratorritako jendarte batek soilik bermatu baitezake, hezkidetzeta eta berdintasuna.

K ERANSKINA. BAIMEN INFORMATUA

Baimen informatua



HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

Izena MADDI IDAZ

GrAL Ikaslea: Jaione Goikoetxea Albizu.

GrAL zuzendaria: Oihane Fernandez Lasarte.

GrAL izena: Pedagogia Feminista Lehen Hezkuntzan. Hezkuntza feminista: genero berdintasuna eskolan.

Baimena ematen diot Jaione Goikoetxea Albizuri nire izena,

MADDI IDAZ.

erabil dezan bere Gradu Amaierako Lanean.

Data eta onartzen duenaren sinadura

2021-06-11

Data eta baimena jasotzen duenarena

2021-06-11

Data eta GrAL zuzendariaren sinadura

2021eko ekainaren 11n,

GrAL: Pedagogia Feminista Lehen Hezkuntzan. Hezkuntza feminista: genero berdintasuna eskolan.